

pertsonaiak

hodei collazo &
aritz aranburu
surflariak

QEU

arteak

ortzai antzerki laborategia
ipuin kontalariak



gaiak

munduari mundo
kudea enpresa
errexala

2,40 €

2007ko azaroa

178



**mundua
lo dagoen bitartean**

ikuskizuna.
abenduak 3. gasteiz



IZAN ZAITEZ

MINTZALAGUNA

BADALIKAZU ZER ESKAINI ETA ZER IKASI!!!

IZENA EMAN

GIZARTE ETXEETAN

EUSKHARAN Kultur Elkartean

Amaia Zentroa (Benito Perez Galdos plaza z/g)

AEK

Arana (Arana, 30);
Aixkiria (J. Mardones, 8);
Amañur (Peru, 8)

IKA

Zaldiaran (Badaia, 25)
Aratz (Adriano VI, 18)
Adur (Errege-erregina Katolikoak, 13)

Mondragon Lingua Gasteiz
(Florida, 8)

Bai & by
(Adriano VI, 12)

Udaberria euskaltegia
(Abendaño, 48 behe)

Hegoalde euskaltegia
(Jose Lejarreta, 9 behe)

EPEA

**Urriaren 15etik
azaroaren 15era***

**Berandu iristen bazara, kurtsoan zehar
eman dezakezu izena eta eginak dauden
taldeetan integratuko zaitugu*

INFORMAZIO GEHIAGO

692 730 444

mintzalaguna@geugasteiz.com

Pedro Asua kalea 2

(Seminario zaharra - 3.solairua)


laguntzaileak




Vitoria-Gasteizko
Udala



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz



sustatzaileak



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

sumarioa 178

7



PATXI ZUBIZARRETA

13



HODEI COLLAZO eta ARITZ ARANBURU

30



KUDEA


- 4 zeregin
azaroko agenda
- 7 geugaia 7
mundua lo dagoen bitartean
gasteiz. abenduak 3
- 11 euskaltasunean. senegal-gasteiz
cheikh ly
- 12 kaletik / idazleen zutabea
mugikortasuna / joxean sagastizabal
- 13 geupertsonaiak
aritz aranburu & hodei collazo
surflariak
- 17 proposamenak
cd / zu bezain ahul
- 18 gaztezulo aldizkaria
puntistak
- 21 arte txokoa
ortzai antzerki laborategia
- 24 batbitan
munduari mundo egitasmoa
- 26 orribatean
III akademia
- 27 arte txokoa
itziar rekalde & pello añorga
ipuin kontalariak
- 30 batbitan
kudea enpresa gaztea
- 32 bidaia
mendi espedizioa
elbrus. 5.642 m. kaukaso
- 33 arababixotzian / historiazutabea
mundina / erlantz urtasun
- 34 euskara&historia
errexala, arabar petoa
- 35 umorea
iñigo sarasola

GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartaren ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua
kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu
breñas glz. de zarate | aldizkariako batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune veleiz de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak:

josune veleiz de mendizabal, edurne begiristain, ainhoa arriaga eta naraa cuesta | azala: dalvez&ebz | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate,
david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea: iñigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan:
joxean sagastizabal, karmele jaio, mundina, kike fdz. de pinedo, erlantz urtasun, santi carvajal eta gaztezulo | publizitatea: idoia breñas,
geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | harpidetza-publizitate laguntzailea: edurne begiristain | inprimategia: Gertu Koop.
E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU
aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



zeregineuskaraz [azaroa]

MUNDUA LO DAGOEN BITARTEAN IKUSKIZUNA

ABENDUAK 3-EUSKARAREN
EGUNA

gidoia&zuzendaritza: patxi
zubizarreta

aktoreak: iban garate mikel losada
maria uriarte felipe barandiaran
parte-hartze berezia: nerea
garmendia agurne anasagasti ane
muñoz

pianoan: joserra senperena
GEU ALDIZKARIA&ELKARTEA +
GAUEKOAK + E.B.PN-k (Gasteizko
Udalaren Euskara Zerbitzua)

antolatua
PRINCIPAL ANTZOKIAN, 20:30
DOAN

SARRERA ESKURATZEKO: ARABA
KULTURALA (posta kalea 17, behe),
azaroren 19tik aurrera (2 sarrera
gehienez pertsonako)
www.geugasteiz.com/
www.vitoria-gasteiz.org



GEU ELKARTEA

BAZKIDE KUOTA

-azaroen elkartearen bazkidetza
2007ko kuota kobratuko da.
-kontu korrantearen aldaketarik izanez
gero azaroaren 15a baino lehen
jakinarazi.
-hemendik aurrera honakoak izango
dira geu elkartearen bazkidetza
kuotak:
-ikasle & langabetuak: 34 euro /
gainontzekoak: 39 euro

GEUREKIN MENDIRA

azarokak 18, igandea
LIZARRAGA MENDATEA - PEÑA
BLANCA (1269 m.) - TREKUA (1265 m.)
- LIZARRAGA (ANDIA MENDIKATEA)

*goizeko irteera
irteera: lovaina plazatik / kotxez
ordua: 9:00
arduraduna: joseba (945200973)

KULTUR ERROTA

azarokak 27, astearte
KONTZERTUA&POESIA: BIHOTZ
BAKARTIEN KLUBA (BBK),
'KATAMALO'
parral tabernan, 20:30

ARRAKALAK ikuskizunarekin
hasitako bidean, bihotz bakartien
klubak, poemak kantu bihurtu eta
hausnarrerako bazka eskaintzera
dator berriz ere. KATAMALO
esaten diogu euskaldunok gure
aurpegia beste bat bihurtzeko
erabiltzen dugunari. ez garena azaldu
beharraz, itxurakeriaz, hipokresiaz,
sakon maitatzeko beldurraz,
zoriontsuak izan ezinaz, lotsaz,
harrokeriaz, benetan garena onartu
nahi ezaz idatzi ditugu poemak eta
kantuak. barre egingo diogu geure
buruari eta urkoarenari, tristetu
egingo gara ispilaren aurrean eta
harro biluztuko gara. ostontzea
agertzeko era bat baino ez delakoan.
formazioa:
alex arregi: ahotsa, gitarrak,
venezuelako cuatroa, boliviako
charangoa
aintzina lekue: bibolina
gorka mugarza: esku-soinu handia,
teklatuak
gorka urbizu: ahotsa eta gitarrak
nerea urbizu: arpa, teklatuak, koroak
gotzon barandiaran eta gorka urbizu:
testuak

IRAKURLE KLUBA

azarokak 29, ostegunarekin
amélie nothomb, katilinarenenak, igela
2006

abenduak 20, ostegunarekin
beñat sarasola, kaxa huts bat, susa
2007

hikaateneoan, pintore kalea 13,
20:00

kontaktua: iban.zaldua@ehu.es
www.geugasteiz.com

GAUEKOAK

ROCK GAUA: OMENALDIA NEGU GORRIAKI

azarokak 23

taldeak: inaurkeim, rockefeller,
mechott pupita, infux
tokia&ordua: zehazteke

'IRUDITXOKOA' ZINE ZIKLOA

azarokak 2 / 9 (20:00):


DARK WATER / EKIALDEA EKIALDE

azarokak 16 / 23 / 30 (22:00):

OGIA ETA ARROSAS / AGIAN /

ARROSAREN IZENEAN

luis de ajuria aretoan



IPUIN ETA KONTAKIZUN LABURREN XIV. LEHIAKETA

epea: azarokak 30

14-35 urte

BERTAKO MUSIKA TALDEEN 7.

ERAKUSKETA

lanak aurkezteko epea: azarokak 15

14-35 urte

CRASH 07: GAZTEENTZAKO

KOMIKIEN LEHIAKETA

lanak aurkezteko epea: abenduak 2

18-35 urte

LANTEGIAK

BERTSOAK

azarokak 3, 10, 17, 24; abenduak 1;
14an ekitaldia

22:00-00:00 / 5 euro

SEXOLOGIA, HILEROKOA ETA
KONPRESAK EGITEKO LANTEGIA

azarokak 3, 10, 17, 24

22:00-00:00 / 5 euro

DANTZAK

azarokak 2, 9

22:00-00:00 / 5 euro

FIMO

azarokak 2, 9, 16, 23

22:00-00:00 / 5 euro

TXALAPARTA

azarokak 3, 10, 17, 24; abenduak 1

22:00-00:00 / doan

izena emateko: gizarte etxeetan,
08:30-21:00

www.vitoria-gasteiz.org

(jarduera bakoitza hasi arteko epean)

info+: 945204009 (kolore biziak

elkartea) www.gauekoak.com

GORA TABERNA

(gasteizko alde zaharra, 945121452)

KONTZERTUAK EUSKARAZ

PARRAL TABERNA

(gasteizko alde zaharra)

KONTZERTUAK, ANTZERKIA,
ERREZITALDIK, DIAPORAMAK...

EUSKARAZ

asteartero, 20:30ean

BISITALDI GIDATUAK

ANDRA MARI KATEDRALA

945255135

www.catedralvitoria.com

GASTEIZKO ERDI AROKO HARRESIA

erreserbak: andramari katedralaren

bisitarien zentroan / 945 255 135

4 bisita eguneko (iraupena:

ordubete): 11:15, 12:45; 17:15, 18:45

2 euro pertsonako

MONTEHERMOSO KULTURUNEA

asteazkenero 19:30ean (ez da

beharrezkoa deitzea)

taldeak: astearte & ostiraletan

(aurretik erreserba eginez:

945161830)

945161830

www.montehermoso.net

ARTIUM: ERAKUSKETEN BISITALDI GIDATUAK

asteazken, larunbat eta igandero,
11:30ean

doan. plaza mugatuak

ARTIUM: TALDEENTZAKO

BISITALDI GIDATUAK

derrigorrezkoa alde aurretik

erreserba egitea (73 euro)

ARTIUM: FAMILIENTZAKO BISITA GIDATUAK

urriaren 20tik aurrera

larunbat & igandek: 12:30-13:15

5-11 urte bitarteko umeentzat,

helduek lagunduta

doan. plaza mugatuak

info + erreserbak: 945209010

www.artium.org

IRUÑA-VELEIA

945403044 / 652720947

www.veleia.com

GATZ HARANA. GESALTA AÑANA

astelehenetik igandera (jaiegunak
barne), 11:00 / 12:00 / 13:00 / 16:00 /
17:00 / 18:00

bisitaldia euskaraz: 10 lagun baino

gehiagoko taldeak

helduak: 3 euro / lagundutako

haurrak: dohainik / taldeak: euro 1

945351111

www.vallesalado.net

ARTIUM & UMEAK

ARTIUM TXIKIA

azarokak 4, 11, 18, 25 (igandek)

3-5 urte bitarteko haurrentzat,

helduek lagunduta

12:15-13:30

GOIZEAN ARTIUMEN

azarokak 4, 11, 18, 25 (igandek)

5-11 urte bitarteko haurrentzat,

helduek lagunduta

12:00-13:30

HAURRENTZAKO ERAKUSKETAK

urtarrilaren 6ra arte

GUZTIOK, ABERE

www.artium.org



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza), diruz lagundutako egitasmoa
Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

MONTEHERMOSO KULTURUNEA. ERAKUSKETAK

IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUAK 06

azaroaren 4ra arte
PASAHITZAK
emetasunari buruzko irudikapen
berriak. 2. zikloa
urtarrilaren 24ra arte
TXIKIART
larunbatero, 18:00etan
4-9 urte bitarteko umeentzako
tailerrak
945161830
www.montehermoso.net

NATUR ESKOLAK

zer: ingurumenean oinarritutako
kalitatezko programa hezigarria
barneratzea, zazpi euskal
lurraldeetako ikasleekin
non: urbasako natur eskolan
norentzat: lh5, lh6, dbh1 eta dbh2ko
ikasleentzat / iparraldeko ereduari
lehen mailako 4. eta 5. urtea eta
kolegioko 6 eta 5a (10-13 urte)
noiz: urria, azaroa, martxo, apirila,
maiatza eta ekainean
3 egunez (astelehenetik
asteazkenera edo asteazkenetik
ostiralerara)
prezioa: 55 euro (aseguria,
ikasmateria, kirol, kultura eta
ekintza sozialak barne)
izen ematea:
+34 943 670 249 /
urbasanbagara@udalbide.net
www.udalbide.net

KREA: KOMIKI & POESIA PROGRAMAK

KREAREN komikiaren & poesia
arloko azken sormen-joerak
sakontzeko programak
epea: abenduak 15
-25. komiki eta 3. poesiako eskola-
lehiaketak
-araban edo caja vital kutxaren
eragin-esparruan bizi diren 9 eta 17
urte bitarteko ikasleentzat
-lan irabazleak www.kreared.com
web-orrian eta bilduma-lanetan
argitaratuko dira
-lehiaketen oinarriak: weben /
krearen behin-behineko helbidean
(posta kalea 17) / 945 150 147
www.kreared.com

KREA

BEGIRALEEN FORMAZIOA EUSKARAZ

[udalak diruz lagunduak, ebpen-ren baruan]

IKASTARO MONOGRAFIKOAK -EUSKAL JOLASAK azaroak 16-17 arduradun eskolak antolatua arduradun eskola cruz blanca 1-behea 01002 gasteiz arduradunea@euskalnet.net www.arduraduneskola.org **-EUSKARAREN NORMALIZAZIOA AISIALDIAN**

gaztetxoekin lanean. jardunaldiak
(datak zehazteke)
euskharan-ek antolatua
euskharan kultur elkarte
benito pz galdos pz z/g
(amaia zentroa) 01002 gasteiz
tel./fax: 615790677
euskharan@euskalnet.net

URTXTINTXA ESKOLA

**ASTIALDI ETA SUSPERTZE
SOZIOKULTURALEKO IKASTAROK**
izen ematea: hasi baino 2 aste
lehenago
-LUDOTEKAN MUNDUA JOLASEAN
azaroak 17, 24
**-EUSKARA ETA TEKNOLOGIA
BERRIAK**
azaroak 20, 22, 27
bizkaiko astialdi eta suspertze
soziokulturaleko eskola
zabalbide 26, behe. bilbo.
944320445
urtxtintxa@urtxtintxaeskola.org
www.urtxtintxa.org

GASTEIZKO NAZIOARTEKO XXXII. ANTZERKI JAIALDIA

**EMAKUMEAK IZARAPEAN
(TANTTAKA)**
azaroak 3, larunbata
principal antzokian, 20:30
sarrerak: 17/12/9 euro
**ITXO... TXOIN! (GAR
PRODUKZIOAK)**
azaroak 18, igandea
federico garcia lorca antzokia (lakua
g.e.), 12:00-18:00
(1-3 urte bitarteko haurrentzat)
sarrerak: 945161045
www.vitoria-gasteiz.org/teatros/
www.cajavital.es/
www.generaltickets.com

MINTZALAGUNA PROGRAMA

izena emateko epea: azaroaren 15
bitartera
mintzalagun edo mintzalaguntzaile
izan nahi?
asteaz ordubete
euskara kalean praktikatzeko
mintzalaguna@geugasteiz.com /
692730444
www.geugasteiz.com

EUSKO IKASKUNTZA. IKERKETARAKO LAGUNTZAK

epea: azaroak 30
alde edo banakako proposamenak
www.eusko-ikaskuntza.org
www.euskonews.com

KONTZERTUA: GARI

azaroak 16
ESPERANTZARA KONDENATUA
disco berriaren aurkezpena gasteizen
people aretoan

'EUSKARA ELKARTEAK IBILIAN' VII. JARDUNALDIK

azaroak 23
izena emateko azken eguna: azaroak 15
www.e2ibilian.org

PERU ABARKA NARRAZIO LABURREN III. LEHIAKETA

abenduaren 28ra arte
18 urtetik aurrera
markina-xemeingo udala (euskara
zerbitzua)

LIBURUTEGI BIZIDUNAK

ARDO DASTAKETA
azaroak 7
MIKEL GARAIZABALEN eskutik
+18 urte
iparralde g.e.-an (adour-atturri
gela), 19:30
(gonbit-txartelarekin: astebete
lehenagotik, liburutegian bertan)
**IKER & ENEKO POU: '7 HORMA, 7
KONTINENTE. TASMANIA, TOTEM
POLE'**
azaroak 8
IKUS-ENTZUNEZKO SOLASALDIA
+14 urte
judimendi g.e.-an, 19:00
(gonbit-txartelarekin: astebete
lehenagotik, liburutegian bertan)

HELDUENTZAKO IPUINAK: ITZIAR REKALDE

azaroak 14
'ZER EZ NUKE EGINGO ZURE
MAITASUNA LORTZEKO'
arriaga gizarte etxean, 19:00
(ez da beharrezkoa gonbit-txartela)
**IPUIN KONTALARI MUSIKADUNA:
KOLDO AMESTOY & PANTXIX
BIDART**
azaroak 15
'KONTUKANTARI'
ariznabarra g.e.-an (askotariko gela),
19:30
(gonbit-txartelarekin: astebete
lehenagotik, liburutegian bertan)
IKASTARO KULTURALA EUSKARAZ
'LITERATURA IRAKURTZEKO
BESTE MODU BAT: EMAKUMEA
LITERATURAREN ARIMA'
GEMA LASARTEREN eskutik
hegoalde g.e.-an, urtarrilak 9-
martxoak 12 (10 saio,
asteazkenetan, 19:00-21:00)
izena emateko epea zabalduzik g.e.
guztietan
www.vitoria-gasteiz.org/bibliotecas

BERTXOKO BERTSO SARIKETA

1. FINALERDIA
azaroak 10, aramaion (zabolako
elkartean), 20:00
jokin labayen, eneritz artetxe, olatz
ibarluzea, hodei iruretagoiena, iker
agirre, andere arriolabengoa
2. FINALERDIA
azaroak 17, etxabarri ibiñan
(herriko txokoan), 20:00
manex agirre, lander ibarluzea, ander
solozabal, hodei lopez de arkaute,
jagoba apaolaza, maindi murua
3. FINALERDIA
azaroak 23, agurainen (zerua
jatetxean), 20:00
iñaki viñaspre, alazne untalo, garaxi
taberna, ekaitz samaniego, izar
mendiguren, itsaso paya
FINALA
abenduak 1, gasteizen, errexala
elkartean

G.E.A., 'GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDA' DIGITALA jaso nahi?

Bidalguzu zure e-posta
geu@geugasteiz.com helbidera eta
hilero jasoko duzu. Gasteizko
euskarazko ekintzen bilduma da
G.E.A. Ezinbestekoa Gasteizen
euskaraz mugitzeko!

GEU


laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

LA RIOJANA
on egin!!! **jatetxea**

bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak
Aiztogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa

SEX **PITTILIN GORRI**

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA OIARTZUN

DIBUtec

Paper Bereziak
Arte Ederretarako Materiala
Ink jet original en birziklatuak
Bulego Materiala
Enkoadernazioak
Plastifikazioak
Kopioak
Komiseten Estampaketak

azkarpint
laminatu / laminatuegi
Edozein inprimaketara

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ INPRIMATEGIA

Eramun
Argazki - Estudioa

Heraclio Fournier, 23
(laborategia)
945 13 71 02

Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldua
• Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna
zure esku"

El Clarete
jatetxea

unai eta patxi fdr. de retana

zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874

KIDE
APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



Mundua lo dagoen bitartean ikuskizuna

abenduak 3. principal antzokia. 20:30. doan.

*"bizitzan bi motako hitzak daude: egunekoak eta gauekoak. eguneko hitzek gure pentsamenduarekin dute zerikusia, gure arrazoiarekin, gure erabakiekin. gaueko hitzak, berriz, geure sentimenduetatik sortzen dira, geure irrika eta desioetatik, eta askoz ere libreagoak dira, benetakoa-
goak. hala bada, ongi etorri gaueko hitzen hitzordura, ONGI ETORRI MUNDUA LO DAGOEN BITARTEAN IRRATI SAIORA, sentimendu, irrika eta desioen ordura. goizaldeko ordu bata eta hogeita hamazazpi minutu diren honetan, mikrofonoak zabalik dituzu."*

PATXI ZUBIZARRETA,

'Mundua lo dagoen bitartean'-en sortzailea:

"Ikuskizuna Gasteizen eskaintzea oso garrantzitsua da niretzat"

"Pozarren nago", aitortzen du Patxi Zubizarretak 'Mundua lo dagoen bitartean' bere lana Gasteizko Principal antzokian taularatzeagatik. Gaueko irratsaio batetik abiatzen den istorioan murgildu ditu idazleak Mikel Losada, Iban Garate, Agurne Anasagasti, Maria Uriarte, Nerea Garmendia eta Felipe Barandiaran aktoreak, baita Ane Muñoz zinegilea eta Joserra Senperena musikaria ere. GEU aldizkaria&elkartera, Gauekoak eta EBPnren elkarlanari esker abenduaren 3an, euskararen egunean hain zuzen, izango da Gasteizen musika, irudiak eta hitzak uztartzen dituen lana.

t. josune velez de mendizabal

a. edorta sanz & artxibo

"Pentsa eta pentsa egon ostean, gaueko irratsaio bat egitea edo itxuratzea bururatu zitzaidan gero, halakoetan deitzen duen jendeak libre hitz egiten duelako, anonimatotasunetik, haien kezka, obsesio eta desioak agertzen direlako. Eta saioari 'Mundua lo dagoen bitartean' izena jarri nion, eta desagertu den neska baten istorioa asmatu nuen, Junerena, baina haren hiru maitaleren bitartez kontatua: umorez, ironiaz, erromantikotasunez, bihurrieriaz, misterio eta probokazio ukitu batekin ere", azaldu du Patxi Zubizarreta idazleak. Proposamena Euskara Elkarteen Topagunea-ren eskutik iritsi zitzaion: "Bilbon, Bilborock-en gazteentzako ikuskizun bat prestatuko duzu? Betiere 'Hamar mezu eta dei bat' gogoangarri -eta bakan- haren ildotik, baina aldi berean desberdina...". Emaizta abenduaren 3an izango da ikusgai Gasteizko Principalen.

Literaturak taulara jauzi egin du

Gazteei zuzendurikoa da batik bat; zergatik haiengan pentsatua?

'Eztia eta ozpina' edo 'Atlas sentimentala' idatzi ondoren, ia ez dut gazteentzat ezer idatzi. Publikorik zailena iruditzen zait. Eta hain zuzen horregatik onartu nuen, horrek motibatu ninduen...

Zu idazlea zaren heinean, antzerki eta literatura arloetan gazteen gabezia sumatzen al duzu?

Esango nuke, oro har, euskaraz oso lan gutxi sortzen direla haientzat eta sortzen diren asko oso bideratuta daudela. Bitxia da: gure gaztaroan apenas izan genuen libururik, eta irakurle irten ginen, edo idazle. Gaur egun, berriz, sorkuntza izan, itzulpena izan, aukera zabala dago baina ez ditugu gazteak erakartzen. Horregatik uste dut proposamen berriak, desberdinak egitea komenigarria dela. Literatura liburuetan eta liburuetatik kanpora erakustea, bide berriak deskubritzeko, amodio gutunak plagiatu -edo kopiatu- ahal izateko,

kontsolatzeko... Egia esan, 'Mundua lo

dagoen bitartean' noizbait liburu (liburu-disko?) bihurtuta ikusi nahi nuke.

"Protagonistek gazteengandik hurbil egon beharra zuten, eta horrela izan da"

Eta behin istoriaren gidoia mamitua zenuela, zeren arabera egin zenuen aktoreen aukeraketa?



"bitxia da: gure gaztaroan apenas izan genuen libururik, eta irakurle irten ginen, edo idazle. gaur egun, berriz, sorkuntza izan, itzulpena izan, aukera zabala dago baina ez ditugu gazteak erakartzen"

Gazteentzat istorio erakargarri bat asmatu beharra neukan, eta protagonistak ere beraiegangandik hurbil daudenak aukeratu. Iban Garate lehendik ezagutzen nuen eta argi nuen neska protagonistaren senargai ohiarena egiteko mundiala zela, baina harekin lehian beste mutil bat behar nuen eta Mikel Losada espeziala irudituz zitzaidan; bikoteak eszenategian oso lan ona, oso sinesgarria lortzen du. Agurne Anasagasti eta Nerea Garmendia telebistatik ezagutzen nituen, eta irudipena nuen andregaiarena egiteko, adiskidearena egiteko, egokiak izan zitezkeela, eta

hala gertatu zen, baina Nerea 'Los hombres de Paco' telesaillean hasi zen, eta hasieratik Maria Uriartek bete zuen haren rola. Azkenik, Felipe Barandiaran nahi izan nuen irratsaio-ko aurkezlearena egiteko, eta honekin ere oso pozik nago: oso ahots egokia du bere rolerako. Joserra Senperenarekin ere ziurtasun osoa nuen; haren musika entzuten da eszenak ikusi bitartean. Eta gauza bera Danel argiztatzailearekin. Halako jendearekin ezin ezer txarrik atera...

Oso talde handia da, nola moldatu zarete entseiuetan?

Bazeneki... Oso urruneko jendea da eta nire asmoa, hasiera-hasieratik, haientzat ere zerbait erraza proposatzea izan zen. Ez zuten ezer buruz ikasi behar, papera izaten dute aurrean, eta, hala ere, zer-nolako bizitasuna ematen dioten testuari... Grabaziorako ere kamara digital bat izan genuen, baina egun bakar baterako, eta hor Ane Muñoz zine zuzendaria fin baino finago ibili zen, oso baldintza xumeekin oso lan ona lortuz.

Bilbon, Elorrioren eta Galdakaoren egon ostean, abenduan Gasteizen

Berezko sormenezko lana duzu hau Patxi. Ez da ordea lehenengoa, aurrekariak izan badituzu, horra hor, 'Hamar mezu eta dei bat' Principal Antzokian estreinatu zenuena. Nola sentitzen zara zuk zeuk sortutako egitasmo hauen aurrean?

Hasieran oso galduta ibili nintzen, baina gaueko irratsaioaren ideia bururatu zitzaidanean jo eta ke hasi nintzen gai horren inguruan. Mara Torres-en 'Hablar por hablar' liburua irentsi nuen, beste hainbat gazte liburu -edo helduenak- irakurri, eta hor hasi zen istorioa mamitzen. 'Hamar mezu eta dei bat' hor zegoen, baina batez ere besteren testuak ageri ziren bertan, eta oraingoan zerbait pertsonalagoa, zuzenagoa, bihurriagoa, sentsualagoa egin nahi izan dut. Hasieratik emandako askatasun osoz jokatu dut eta nik uste emaitza oso erakargarria izan daitekeela. Hala frogatu genuen Bilborock-en, eta gero Elorrioren eta Galdakaoren. Baina ikuskizuna Gasteizen eskaintzea oso garrantzitsua da

niretzat. Grabatzen-eta San Prudentzio kale-an ibili ginen, Principal-aren inguruan, eta gogoan dut aktore lagunei nola esaten nien: "Baietz egunen batean Mundua lo hemen eskaini". Eta horra. Oso Gasteizko istorioa da: unibertsitatea, hirigunea, auzoak...

Beno, ba gertu dago dagoeneko Gasteizko taularatzea...

Amaitzeko, orain poztasuna lasaitasunarekin batera dator: lehen ekitaldiaz eta horren ingurukoaz arduratu beharra neukan, guztiguztiz, baina orain GEUren babesarekin, Estirena bereziki, edo Udaleko Gazteria Zerbitzuko Imanol-ena, Gauekoak-ena... pozarren nago, ziur nago oso publizitate ona egingo dutela eta dena oso txukun lotu-ko dutela■

JOSERRA SENPERENA, piano-jotzailea:

"Diziplinen arteko lanak erakartzen nau"

Erraz sortu du Joserra Senperenak ikuskizun honetarako musika eta horrela azaltzen du musikariak: "Pertsonaiak garbiak dira eta musikaren funtzioa ere bai. Hala nola, batzuetan musika gozatzeko, bestetan saioaren atalak banatzeko edota hitzen atzetik entzun dadin, irratian bezala. Azken finean, irradi saio batean gaude eta nire papera saio horri musika jar-zea da".

Patxirekin beste hainbatetan aritu da musikari Senperena eta horregatik "atsegin handiz" hartu zuen Patxiren proposamena. "Diziplinen arteko lana da hau ere; eta nik, Patxik beste, horrelakoak behar ditut. Zuzenean izatea gainera erakargarri egiten zait". Senperenak onar-tzen du hitzekin baino musikarekin azaltzen dela bera hoberen, hala ere argiago ezin du bere burua azaldu: "Artean, eta bizitzan, perspektiba funtsezkoa da, eta musikariak ez diren gainontzeko artistekin lan egiteak hori ematen dizu". Esaldi borobil honekin agurtu egun Fitorekin biran dabilen pianojoleak.



ANE MUÑOZ, zine zuzendaria:

"Patxiren proposamena arriskatua eta ausarta iruditu zait"

Ane Muñoz (Hondarribia, 1967) zinemagileak irudiak jarri dizkio Patxi Zubizarretaren isto-riari. "Aktoreek oholta gainean irakurtzen duten bezala, atzeko pantailan tarteka irudi batzuen muntaketa azaltzen da, eta horiek neuk grabatu ditut -dio gipuzkoarrak-. Testua ilus-tratzen duen bideo bat, istorioan gertatzen diren atal batzuk ilustratzen dituen, hain justu ere". Bideoz grabaturiko irudien ekoizpena egokitu zaio Aneri 'Mundua lo dagoen bitartean' lan talde uztartu honetan. "Testuaren irakurketa osatzeko irudiak dira, konplementu bezala eraikiak". Patxiren proposamena "interesgarria" dela pentsatzen du Muñozek. "Antzerki mota arriskatua da eta nahikoa ausarta iruditu zait, polita eta orijinala", esan du.

Anek esperientzia handia du aktoreekin lanean zuzendaria den heinean; horregatik horrela laburtzen du ikuskizun honen prestaketetako esperientzia: "Taldeko lana, niri dagokidanez, atsegina izan da, aktoreekin erraz lan egin ahal izan dut eta Patxik emandako askatasun hori oso lagungarria egin zait lan egiterako garaian". Besteak beste, 'Loturak' (aurtengo Zinemaldian saritua) eta 'Basurdea' film laburren zuzendaria denaren lana "fina baino finagoa" izan dela nabarmendu nahi izan du Patxi Zubizarretak.



FELIPE BARANDIARAN,
aktorea



AGURNE ANASAGASTI,
aktorea



IBAN GARATE, aktorea:

"Idazle bat, musikariak, aktoreak eta zinegileak bildu ditu Patxiren lanak eta hori berez beti da edozeinentzat aberasgarria"

Zein da 'Mundua lo dagoen bitartean' ikuskizunean zure pertsonaia?

Ruben da nire pertsonaia. Gazte arrunta delakoan nago, 25 urte ingurukoa. Neska baten (Agurne Anasagasti) bueltan dago egituratua 'Mundua lo dagoen bitartean'-en istorio guztia eta Ruben zurrumbilo horretan sartua dago, Mikel Losada eta Nerea Garmendiaren pertsonaiekin batera. Guztiek irratsaio batean egingo dute topo. Nire pertsonaiak, Rubenek, maitasun istorio bat izan zuen Agurne Anasagastiren pertsonaiekin, eta arduratuta azalduko da neska arrastorik utzi gabe desagertzen denean.

Nolakoa izan da zure pertsonaiaren garapen prozesua? Zailtasunik topatu al duzu?

Aktore lanak besteen lekuan jartzea eskatzen du eta hasteko eta behin, hori ez da kontu samurra izaten. Bestalde, gehienetan ez ditugu guk geuk gidoiak idazten, eta moldaketa lanean ere egin behar izaten dugu ahalegina. Edozein kasutan, Patxi Zubizarretak bere aldetik asko jarri duelakoa nago, aktoreok eroso sentitzen gara testuarekin eta ikuskizunaren egituraketarekin. Kontuan izan behar da irakurketa dramatiko batez ari garela, ez dela antzerkia eszenografia dinamiko bati dagokionean, baina proiektatutako irudiei eta zuzeneko musikari esker dinamismoa bikain lortu da. Erlaxatuta ikusteko lana da, giro lasaian, gau-giroan. Esan bezala, lan handia egin da alor horretan Ane Muñoz, Joserra Senperena eta Karlos Gimenez-en eskutik, Zubizarretaren gidaritzapean.

Eta Patxi Zubizarretak proiektu honetan parte hartzea luzatu zizunean, nola baloratu zenuen proposamena?

Aurretik Patxi egindako beste lan batean hartu nuen parte: Urrezko Giltza izeneko haur-liburuaren "zuzeneko bertsioan". Gasteizen, Europa aretoan estreinatu genuen. Liburu-diskoak mundu mailako aipamena ere jaso du gainera. Liburuko zenbait atal zuzenean eskaintzen ditugu, jolas moduan planteatuta. Han ere zuzeneko musika eta irakurketa dramatikoak daude eta asko gozatu dut emanaldi guztietan. Beraz, zalantza gutxi Patxi berriz ere lan txo bat eskaini zidanean. Joserra Senperena ere egitasmoan izango zela komentatu zidan gainera, eta bai bati eta baita besteari ere, estima handia diet. Azken batean koadrila-giro bikaina sortzen da gure artean eta Patxi konfiantza handia transmititzen dit pertsonalki.

Zer nabarmenduko zenuke musika, irudia eta hitzak dituen ikuskizun honetatik?

Irakurketa dramatikoek ospe onik ez dutela pentsatzen dut. Jende gutxiri gustatzen zaio eseri eta entzuten egotea, besterik gabe. 'Mundua lo dagoen bitartean'-ek ikuslea istorioan murgiltzeko ahalegina egingen du. Irudiak eta musika ere badaude eta irakurtzen den guztia antzeztua dago. Lehenengo pertsonaia kontatzen da, pertsonaia bakoitzak bere bizipenak adierazten ditu, narratzaileak gabe. Ikusleari "irratia" entzuteko eskatzen zaio (irratsaio batean kokatua dagoelako antzezlan), baina



entzuten duena ikusteko ere bai, bai proiektatutako irudien bitartez eta baita norberaren irudimenean ere.

Azkenik, lan talde handia eta lanbide aldetik anitza ere izanik, zer-nolako esperientzia ekarri dizu antzezlan honek?

Koadrila bat garen sentsazioa daukat, eta hori transmititzen duten lanak beste gogo batez egiten dira. Oso polita da hori esan ahal izatea. Mundu desberdinetako jendea batu du 'Mundua lo dagoen bitartean'-ek: idazle bat, musikariak, aktoreak, zinegileak..., hori berez da edozeinentzat aberasgarria. Ez da erraza egun berean denok batzea, bakoitzak bestelako zereginak dituelako. Elegante asko ibiltzen gara elkarrekin, eta hori guztia, lanean arituta!!

mundua lo dagoen bitartean

- abenduak 3. euskararen eguna. principal antzokian, 20:30
- gidoiak: patxi zubizarreta
- aktoreak: iban garate, mikel losada, maria uriarte, felipe barandiaran
- parte-hartze berezia: nerea garmendia, agurne anasagasti, ane muñoz
- pianoan: joserra senperena
- sarrerak: doan. azaroaren 19tik aurrera ARABA KULTURALen (posta kalea 17-behea) jaso daitezke (2 sarrera pertsonako)
- antolatzaileak: GEU aldizkaria & elkarteak, Gauekoak, EBPN (Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzua)

CHEIKH Ly

“Senegalera joango nintzateke oporretan hemengo lagunekin”

8 urte baino ez dituen arren gauzak oso argi dauzka. Cheikh-ek futbolari izan nahi du. Dakarren jaio zen ume honek, izugarri gustuko du futbolearen aritzea nahiz eta beste kirolei ere tartetxo bat eskaintzen dien. Orain dela bi urte etorri zen Gasteiza bizitzera eta jada euskaldun petoa dugu. Euskaraz gain, gaztelera, frantsesa eta bere ama- hizkuntza den Wolof-a menperatzen ditu.

t. ainhoa arriaga a. edorta sanz

Noiz haserretzen da Cheikh? Eskolako kideek jotzen banaute edota gaiztoa naizela esaten badidate.

Eta noiz pozten da? Oparitxoren bat egiten didatenean.

Zure gorputzeko atalik politena? Ahoa da gehien gustatzen zaidana, bertatik hitz egiten dugu!

Denbora librean zer egitea duzu gustuko? Lagunekin egotea. Asko ditut, hemen eta Senegalen.

Telebista ikustea gogoko duzu? Zer? Bai, dena gustatzen zait. Gaztelera zein euskaraz ikusten ditut marrazkiak.

Kirolzalea zara? Bai, futbola da gehien gustatzen zaidana, baina teniseari jokatzea eta bizikletaz ibiltzea ere gustatzen zait.

Musikarik gustukoena? Senegaleko musika eta hemengo entzuten ditut, baina Senegalekoa nahiago dut. Anaiak erakutsi zidan dantzatzen.

Zein da gehien atsegin duzun janaria?

Oilaskoa. Amak eta Ndèye Ba-k, arreba nagusiak, oso ona egiten dute.

Irakurtzea gustatzen al zaizu? Bai, asko.

Zein da irakurri duzun azken liburua? ‘Grandullón’.

Irakasgaiarik kuttunena? Eta gutxien maite duzuna? Gimnasia da hoberena eta matematikak txarrena.

Ikastea zure gogokoa al da? Ez. Etxeko lan gehiegi bidaltzen dizkidate.

Eguna edo gaua? Eguna. Aita lo egoten da, gauetz lan egiten duelako, eta horregatik nahi dugunera arte jolastu dezakegu. Gainera, ez da zarategatik haserretzen.

Nora joango zinateke oporretan? Senegalera, hemengo lagunekin.

Zer botatzen duzu gehien faltan Senegaletik? Lagunak.

Gasteizko leku bat aukeratzekotan... Mendizorroztako *pistinak* asko gustatzen zaizkit. Thianerekin joan ohi naiz udan, nire arrebarekin.

Zenbat anai-arreba dituzu? Euskaldunak dira? Lau. Gazteenak bakarrik. Thiane bada, Modiene ikasten ari da etorri berria delako, eta beste bi nagusiak ez dira euskaldunak.

Wolof, frantsesa, gaztelera, euskara... Zein erabiltzen duzu zeinekin? Wolof-a etxean hitz egiten dugu, gurasoekin eta anai-arrebekin. Thianerekin batzuetan euskaraz ere aritzen naiz eta lagunekin klasean euskaraz eta jolas-orduetan gaztelera.

Zein da zailena? Frantsesa.

Eta zeinekin moldatzen zara hobe-kien? Wolof-arekin.

Euskaraz bizi daiteke Gasteizen? Euskaraz eta erdaraz. Euskaraz bakarrik ez zaituzte ulertzen.

Nola ikasi duzu zuk euskaraz? Bi urtetan. Thianek zenbakiak-eta erakutsi zizkidan, bestea eskolan ■

Kalean gora, kalean behera

Aparkalekua bilatzen ordu erdi igarotzen duen jende ugari dago Gasteizen eta autobusean egunero ordubete pasatzen duenik ere bada. Bizikleta erabiltzera animatu direnak gero eta gehiago dira gure hirian eta oinez edonora doazenak ere ezagutzen ditugu. Mugikortasun jasangarriaren aldeko kanpainak egiten diren arren, gurea, herritarrona da azkenengo hitza. Mugi hadi!

t./a. ainhua arriaga & naroa cuesta

- Gasteizko kaleetan zehar nola mugitu ohi zara?
- Garraio publikoa erabiltzen duzu?
- Zer egin beharko litzateke mugikortasuna hobetzeko?



Pablo Mateos, lorazaina, eta Julen

- Gasteizko Alde Zaharrean bizi naizenez oinez edo bizikletaz mugitu ohi naiz hiritik. Kotxea soilik erabiltzen dugu kanpora irten behar dugunean.
- Garraio publikoa gutxi erabiltzen dut, denbora aurrezten dut oinez edo bizikleta erabiliz.
- Autobusen frekuentzia handitzeak, linea berriak jaritzeak eta bidegorri sarea hedatzeak erraztuko luke mugikortasuna Gasteizen.



Guillermo Ortiz de Landaluze, unibertsitariora

- Gasteiztik beti oinez ibiltzen naiz. Hiriaren erdialdean bizi naiz eta dena hurbil daukat. Beraz, kotxea ez dut erabiltzen.
- Autobusak oso gutxitan hartzen ditut. Hala ere, linea gutxi daudela iruditzen zait.
- Bidegorri gehiago jarri beharko litzukete.



Maria Izpizua, tabernaria

- Bizikletaz eta oinez mugitu ohi naiz Gasteiztik. Hiritik kanpo atera behar dudanean erabiltzen dut kotxea, baina Gasteizko kaleetan zoratu egiten naiz.
 - Garraio publikoak oso urduri jartzen nau. Asko dira zerbitzu honen inguruan kexak dituztenak, gehienbat periferiako biztanleak.
- Bidegorrien funtzionamendua benetan gauzatzea. Hau da, bidegorriak errespetatzea. Oinezkoek, auto gidariek eta bizikletaz doazenek errespetatu beharko litzukete bidegorriak. Gasteiz "Little Amsterdam" moduko bat izatea lortu behar dugu.

idazleak

Yate bat edo...

t. joxean sagastizabal



Urte honen hondarrean, ondo bidez, nire liburu bat gaztelaraz agertuko da, euskaratik itzulita. Lehenengo aldia izango da, aurreneko agertuko da nire "zerbait" milioika lagunek irakur lezaketzen hizkuntza batean.

Eta horren berri eduki orduko barru-barrutik esneketariaren ipuina hasi zait; gutxi gora-behera, horrelako zerbait:

"Ehunka mila ale salduko dira Espainian bakarrik, eta gero, Uruguain dudak izebari esker Atlantikoa saltatu eta Garcia Marquezek baino gehiago salduko dut eta handik buelta neure yatean egingo dut eta..."

Baina, jakina, ipuinean, zeharo aberastu behar duen esneketariari badakizue zer gertatzen zaion...

Alegia, makina bat euskal idazle ezagutzen ditut, haiek idatzitakoak itzuliak izan direnak, eta ez gaztelarara bakarrik, baita beste hizkuntza mordo batera ere...

... eta yaterik, inork ez, igerian denak.

Pentsatzen dudanean badagoela jendeak "tainak ez du garrantzirik" esaten duena...

Hona hemen nire aitortpena: Nahiago nuke milioika lagunek irakurtzen duten hizkuntza batean idatzi, eta asko saldu, eta Eusko Jaurlaritzarako inork sekula santan irakurriko ez dituen gauzak itzultzen ibili beharrik ez eduki, eta aberastu zeharo.

Badakit, bai, badakit zer egin, badakit nola jokatu esnea alferrikaldu ez dadin, badakit ipuinari bukaera nola aldatu!

Nik ez dut esnerik edaten!

Desastre digeritzen nuela-eta, aspaldi hasia naiz soja edaten ordez!

Eta zuek badakizue nola bukatzen den sojaketariaren ipuina?

Ezta nik ere, baina gauza bat ondotxo dakit, soja itsasontzi handietan iristen da portuetara... ■

GORA HARRISOJATZAILEAK!

Hodei Collazo eta Aritz Aranburu

Euskal Herriko surfa, sasoian



Olatu handiak maite dituzte. Olatuak irakurri eta taularekin uretan idazten dituzte. Hondartzen arabera irudikatzen dute munduko mapa, eta munduko txoko guztietara zabaltzen dute Euskal Herriko hondarra. Euskal Herriko surfak bere garai hoberenatarikoak bizi ditu egun, eta horren *errudun* dira txiki-txikitatik ohol gainean aritzen diren euskal surflariak.

t. edurne begiristain
a. argazki press

Bizkaiko Golkoa da surf egiteko Euskal Herriko gunerik entzutetsuena: Ereaga, Mundaka, Laga, Sopela, La Salvaje, Meñakoz, Barrika, Bakio,... Baina Euskal Herriko olaturik ospetsuena Mundakako ezker olatua da. Olatu hutsa eta luzea da Laidako hondartza eta Mundakakoa bereizten dituen kanalean sortzen dena. Mundu osoko surflariak etortzen dira olatu horretaz gozatzera.

Alabaina, Mundakako olatua desagertzeko zorian egon da. 2003an hasi zen ahultzen ezker olatua, eta 2005ean izan zuen desagertzeko arriskurik handiena. Ekosistemaren eta klimaren aldaketari leporatu zioten hasiera batean desagertzeko arrisku hori, baina Eusko Jaurlaritzak eta EHUK egindako ikerketa batek agerian utzi zuen arazoa Mundakako itsasadarren hondar hondoen aldaketak eragin zuela. Laidako hondartzako dunak berreskuratzeko eta Murueta ontziolen irteera errazteko dragatzea eraikitzeke egindako aldaketak, hain justu. Baina, zorionez, natura bere onera etorri da, eta aurten olatu preziatua berreskuratu egin da, munduko surflari guztien gozamenerako.



Hodei Collazo eta Aritz Aranburu Zarautzen

Billabong Pro 2007

Urriaren 2tik 14ra bitartean mundu osoko 44 surflari onenak bildu ziren Mundakan (Bizkaia), Billabong Pro lehiaketan. Billabong Pro Mundaka WCT zirkuituko proba bat da, hau da, mundu mailan jokutzen den txapelketa garrantzitsuenetarikoren proba. WCT zirkuituan mundu osoko 44 surflari onenek hartzen dute parte, eta 10 proba dauzka, horien artean, Mundakan jokutzen dena. Zortzigarren proba da hemengoa, hain zuzen ere. Pasa den hilean egindako lehiaketan bi surflari euskaldun aritu ziren munduko onenekin batera Mundakan: Aritz Aranburu eta Hodei Collazo. Biak WQS zirkuituan (bigarren mailan) aritzen direnez, gonbidatu moduan lehiatu ziren Mundakan. Hirugarren errondan kanporatuak izan ziren arren, izugarritzko maila altua erakutsi zuten.



ARITZ ARANBURU. 22 urte. Zarautz. 15 urte ohol gainean

“Oso harro nago etxe ondoan Mundakako olatua izateaz”

Mundakako txapelketan egindakoarekin gustura geratu zinen?

Gustura bukatu nuen. Bigarren aldia zen dibisio horretan parte hartzen nuena, eta lehenengo erronidan munduko txapelduna hiru aldiz kanporatzeko aukera izan nuen, beraz, egindakoaz harro nago, oso gustura nago.

Surfaren munduan txikitatik zabiltza. Nolakoak izan ziren zure hastapenak?

Zarautzen surfeatzeko hasi nintzen, eta txikitik une oro hondartzan egoten nintzen, eta oso txikitatik gogo handia nuen probatzeko. 11 urterekin lehiaketetan parte hartzen hasi, eta hortik aurrera mailaz igotzen hasi nintzen; federazioko txapelketetatik Europa eta mundu mailako txapelketetara salto egin nuen, eta profesionaletan aritzeko eskaintza etorri zitzaidan ondoren.

Zeintzuk dira zure ametsak? Noraino iritsi nahi duzu?

Oraingoz lehenengo mailan sailkatu nahiko nuke. Beti finkatu ditut helburuak epe motz eta luzera begira. Epe motzekoak pixkanaka eskuratzen joan naiz, eta epe luzekoak ere gauzatzen ari naiz.

Euskal Herrian maila handiko suflariak ari zarete. Nazioartean zein iritzi dute hemengo surfari buruz?

Euskal Herrian surfa izugarri ari da garatzen. Euskal Herriko eta Europako surfaren bilakara beranduago etorri da AEBekin, Australiarekin edo Brasilekin alderatuta, ebolutzio mantsoagoa izan du. Baina pixkanaka-pixkanaka ari gara haien mailara jartzen. Datorren urtean lehenengo dibisioan gauzak ongi joanez gero, aukera egon daiteke Europako lau pertsona lehen mailan egoteko.

Zein inguru nahiago duzu surfean aritzeko? Zein egoeratan moldatzen zara hobekien?

Gogokoen dudak lekua Mundaka da. Asko bidaiatu dudak arren, Mundakan egoera ona dagoenean, munduko olatu onena sortzen da, eta, gainera, bertan bizi izan ditut momentu onenak. Oso harro nago olatu hori etxe ondoan edukitzeaz. Bestelakoan, bidaiatzen dudanean, Hawaii oso gustuko dut, normalean denboraldiaren barruan joaten naizenean, itsasoa indartsua delako eta olatu handiak izaten direlako bertan.

Surfeatzeko, bakarrik ala jende gehiagorekin?

Argi dago bakarrik egonez gero, olatu gehiago dituzula, baina pare bat lagunekin egotea da egoera perfektua.

Zein ezaugarri behar dira kirol hori praktikatzeko?

Ezaugarri fisikoetatik hasita, sasoiaren egotea inportantea da. Surfak indar asko eskatzen duen kirola da, ez bakarrik hanketan edo besoetan, gorputz osoan oreka izatea inportantea da. Besoak, hankak, eta gerria asko erabiltzen dira, eta beraz, flexibilitatea oso garrantzitsua da, lesio asko ekiditen direlako. Psikologikoki prestatuta egotea ere ezinbestekoa da, urtean denbora asko pasatzen baitugu bidaiatzen -6 edo 7 hilabete- eta buruak prestatuta egon behar du maite duzun jendearengandik urruti egoteko eta bakarrik moldatzeko. Eta, noski, horrekin batera, itsasoari errespetua izatea funtzeskoa da.



HODEI COLLAZO. 23 urte. Zarautz. 15 urte taula gainean

“Gogoia, pazientzia eta denbora behar dira surfean”

Pozik Billabong Pro txapelketan emandako mailarekin?

Bai, egia esan oso txanda zailak izan ditut, baina oso gustura geratu naiz egindako lanarekin.

Zelako esperientzia izan da munduko surfleri onenekin aritzea?

Oso esperientzia ona izan da. Neu eta Aritz Aranburu bigarren mailan gaude eta apur bat desberdina da maila honetan aritzea, surfleri oso maila altua dutelako. Munduko onenekin lehiatu gara, eta hori oso baliagarria da, ikasteko aukera eman digulako.

Nola hasi zinen surf munduan?

8 urterekin hasi nintzen surfean Zarautzen, udan batez ere. 13-14 urterekin traje luzea oparitu zidaten, eta neguan hasi nintzen surfeatzen. Hortik aurrera urtero egun osoa uretan pasatzen nuen, Euskal Herriko txapelketetan parte hartzen hasi nintzen, juniorretan... Eta orain munduko txapelketetan nago.

Zeintzuk dira zure ametsak? Zer lortu nahi duzu surfean?

Nire helburua da WCTn saiatzea. Aurten apur bat zaila izango da, baina datorren urterako bertan parte hartu nahiko nuke.

Euskal Herrian puntako surfleriak zaudete. Nola ikusten duzu Euskal Herriko surf panorama?

Aranburu eta neu gara nolabait nabarmen-



tzen ari garenak, eta Eneko Acero ere hor dago... Zarautzen ume txiki asko daude surfeatzen, oso gazteak dira, baina jarraitzen badute entrenatzen eta gogoia jartzen, urruti ailegatuko direla ziur naiz.

Surfean aritzeko, bakarrik ala jende gehiagorekin?

Batzuetan ongi etortzen da bakarrik surfeatzea, bestetan lagunekin, eta beste batzuetan profesionalekin ere egokia da, ikasteko batez ere.

Eta non nahiago? Zein lekutan eta baldintzatan moldatzen zara hobeto ohol gainean?

Ez zait gustatzen leku jakin batean gelditzea. Gustuko dut olatuak probatzea eta olatu askotan surfeatzea. Australian, Hawaiien, eta etxean ere bai.

Zein ezaugarri dira ezinbestekoak surfean aritzeko?

Batez ere gogoia, pazientzia eta denbora pixka bat izatea. Surfean ez zara segituan zutik jartzen eta maniobrak egiten hasten. Baina denbora, pazientzia eta ikasteko gogo apur batekin dena ongi dihoa.

Egun surfa kirola ez ezik, moda ere bada. Enpresa asko daude mundu horretan... Surfaren onerako ala kalterako da hori?

Nik uste dut guretzat ongi dagoela, modu horretan surfa gehiago ikusten delako. Orain mundu guztia dabil surfean, surfeko arroparekin, komunikabideetan gero eta gehiago ikusten ari da,... Gero eta gehiago ikusi, gure onerako izango da■

**EGUR**

- Zurezko teilotuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goian Industrialdea
Tl/Fxa: 945 465 921
Tl. 627 417 747
Info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)

**eusko
alkartasuna**

**Gazte
Abertzaleak**

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea

Euskeraz Araban BAI

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

liburua

'zu bezain ahul'

karmele jaio
elkar-urria07
www.elkarlanean.com



karmeleri bere liburu berriaren 15 ipuinak, bai eta izenburua ere, hitz gutxitan deskribatzeko eskatu genion. horra hor adierazitakoak...

kilkerra: hutsunea
gogoratzen: memoriaren tranpak
hosto ahulak: ahuleñ indarra
dantzan: belaunaldien borroka
aitonaren kanikak: izu gerarazgarria
cry baby: ai, izan ginena...
arnasa hartzea bezala: tutuaren morroitz
zuloa: sabel hutsaren sindromea
oihaneko erregea: haurren hizkuntza
disneyland paris: traizioa
zero akats: ezinezko perfekzioa
atzerako zenbaketa: dena aldatu da
jaun eta jabe: gizakiaren txikieria
hegaldi izoztua: galdutako askatasuna
supermerkatuko eskaintzak: denbora eta espazioa bat ez datozenean

zu bezain ahul: zu zara nire ispilua, ni zurea



cd-ak

'uhinak'

uek
gaztelupeko hotsak-urria07
www.hotsak.com



keu agirretxea ondarroako gitarrajotzai-leak zuzendutako taldearen bosgarren diskoa duzue hau. orain arteko bilakaeraren ondorioz, hirukotea da taldea jon gurrutxaga (arima beltza) baterista eta mikel arakistain (etsaiak, fjord) baxujolea-rekin batera. keuk konposatutako kantuak hiruron artean moldatzen dituzte eta lan berri honetan igoera kualitatiboa erakusten dute, konposaketan, kantaeran eta jotzeko eran. azken finean, rocka egiteko hiru ez da besterik behar.



'gaztea: the singles'


oihuka-urria07
www.oihuka.com

diskoa azken 18 urteetako euskal talde garrantzitsuenetako batzuen kantu arrakastatsuen bilduma da eta, bertan, amaia montero ete mikel erentxunek abestutako lau teiltatu-ren bertsio berriaz gain, artista eta talde hauen kantak daude: gari, berri txarrak, etxe, fermin muguruza, kauta, ken 7, plt, hertzainak, latzen, kerobia, lor, the uski's, betagarri, seiurte, urtz, delirium tremens eta gatibu. talde eta disko-etxe desberdinak batera, e-gaztea, elkar eta oihukaren eskutik.

'kao: sumendiko sekretua' bideo-jokoaren zozketaren irabazlea

markel glz de zarate avalos. 10 urte **zorionak!**

ERANTZUNAK: zer da kao protagonista? kanguru bat nola izena du bere lagunak? tximista



BI PARETA, BI PUNTISTA

ARGAZKIAK: GALDER IZAGIRRE. TESTUA: ALBERTO IRAZU

ZESTA PUNTAK GARAI HOBEAK EZAGUTU DITU. HORI HORRELA DA. HALA ERE, PUNTISTAK ESPOSTATZEN JARRAITZEN DUGU MUNDU OSOKO FRONTOIETARA. IÑAKI GOIKOETXEA ETA IMANOL LOPEZ, MIAMIKO JAI ALAI FRONTOIAN ARITZEN DIREN BI ZUMAIAR, UMETATIK EUREN JOLASTOKI IZANDAKO ZUMAIAKO FRONTOI ZAHARREAN ERRETRATATU DITUGU. LASTER, HONDEAMAKINEK BEHERA BOTAKO DITUZTE FRONTOIKO BI PARETAK.



TXAPELDUNA, KRITIKO

27 urte ditu Iñaki Goikoetxeak. Bost aldiz irabazi du bakar-kako Munduko Txapelketa, eta beste hainbestetan, binakakoa. Hamasei urterekin Milanera joan zen jokatzera, eta ondoren, AEBetara. Miamiako Jai Alai frontoian ari da 2002tik. "Duela hiru urte, zesta punta oso makal zegoen Euskal Herrian, baina orain indartzen ari da berritro. Errua komunikabideena da. Ameriketara hainbeste Jai Alai zabaldu dituen kirol hau, Euskal Herriara hainbeste dibisa ekarri dituen, ia ez da existitzen komunikabide askotan".



PILOTARIEN ELKARTASUNA

Imanol Lopezek 23 urte ditu, eta duela hirutik dabil Miamin. "Hasieran, ez da erraza Miamira moldatzea. Dena dela, pilotarien arteko elkartasunak aurrera egiten laguntzen dizu. Gaur egun, oso gustura bizi naiz han". AEBetako frontoietan aritzen diren zesta puntari gehienentzat bezala, urteak bi zati ditu Imanolentzat: neguko denboraldia Miamin pasatu ohi du, eta udakoa, Euskal Herrian. "AEBetako eta Euskal Herriko frontoietako giroak ez du zerikusirik. AEBetan dena apustuen inguruan mugitzen da".



Irutxuloko hitza



SUSTRAI COLINAK JARRITAKO BERTSOAK

CARA AL SOL-EN DOINUAK
ULTRAESKUINDARREN
GERRARAKO BAIMENA
HAIZEAN ZEKARREN,
SUA PIZTU ZEN ARTE
ALDERDI EDERREN...
BATZUK PRESO BAITAUDE,
PRESO JAINKOARREN,
MANIFA BAKETSUAK
KONBOKATZEARREN!

BATEKO BARRIKADA,
BESTEKO KOKTELA,
KONTUA DA MANIFA
BURUTU ZUTELA...
PENA BAT DA GARBERAN
GORDE ZITUZTELA
GARBERATIK HAIN HURBIL
EGONDA KUARTELA
HAN SENTITUKO ZIREN
ETXEAN BEZELA!

300

guaranik beren buruaz beste egin dute azken 15 urteotan Amazonian; gazteak dira beren buruaz beste egin duten gehienak. Guarani indigenek haien lurra galdu dute, baita ehizan eta arrantzan mugarik gabe ibiltzeko aukera ere, eta antza, horrek eragin handiegia izan du haien betiko bizi-moduan.

250.000

haritz landatu nahi dituzte Ingalaterrako Sherwood basoan. Izan ere, ezer egin ezean, Robin Hooden ezkutalekua izandakoa erabat gal liteke. Haizeteek, sute-ek eta, nola ez, gizakiek eraginda, zuhaitz ugari galtzen baitira. Pena litza-teke; besteak beste, oso haritz zaharrak daudelako. Robin Hooden erraz lortuko luke landaketa "finantziatzeko" dirua...

gaztezulo.com

Eduki berriak egunero

sexua·gaupasa·egun pasa·musika·sarezulo·hitzorduak·zinema·ikasi bai, baina·mundua·fotografikoak·literatura·teilatupea·protagonistak·agenda·fotomaton·salerosketak·albiste bitxiak·etxeok·komikiak



dalvez
maketozioa | inprimatze-lanak | diseinua
diaz de olano margolaria, 22 - gasteiz
tl 652 77 65 09 - fx 945 24 52 69
info@dalvez.com www.dalvez.com

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

**Euskadik
behar zaitu**

**EAJ
PNV**

PASRAI
TABERNA
Eguzkitan, asteleneetik ostiralera
**JANTOKI
BEGETARIANO**
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL - 945 27 66 33

ZURE HARATEGIAK

**XABIER
AIZPEOLEA**
harategia
Florida Azoka 2 eta 3
Tl. 945 13 24 48
Abastos Azoka 2 eta 3
Tl. 945 26 78 97

**Jose Luis
GARMENDIA**
Harategia-urdaitegia
Andaluzia kalea 13
Tl. 945 28 79 42
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizenziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

ARTEPAN
aniztasuna, kalitatea eta zerbitzua
norbanako eta enpresen eskura
Jesus guridi, 2 - tl. 945 27 88 88
boulevard m.g. - tl. 945 06 88 88
vitoria-gasteiz - www.artepan.com

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
**KERAMIKA HERRIKOLA
ETA BERRIA**
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

**ERROTA
HORTZ KLINIKA**
Julian de Apraiz kalea, 1 Tl. 945 213 390 - Faxe: 945 213 390
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net

bar · restaurante · albéniz
Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tl: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

**MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK LAMINAK**
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tl: 945 13 27 20

**Confeciones
Pinedo
Jantziak**
San Antonio, 11 • Tl. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 • Tl. 945 15 53 39

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

IRYSTA TABERNA
poteo eta pintxoak
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Udaberria
euskaltegia
• Euskaltegi Homologatua
• Helduentzat
• Ume eta gaztetxoentzat
• Musika eskola
• Dantza
Uruguai kalea, 9 - Tl: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tl: 945 22 34 33

GEU
publizitatea:
idogeu@ya.com

**IKER ORTIZ DE
ZARATE**

**Ortzai Antzerki
Laborategiko
zuzendaria**

**“Nire asmoa
zen hemen
sortzea nik
nire garaian
behar nuena
eta ez
zegoena”**

Ortzairen ateak 2004an ireki zituen Iker Ortiz de Zaratek bere jaioterrira, Gasteizera, itzultzearekin batera. 20 bat urte aritu da Iker munduko zenbait eskola eta tokitan bere burua antzerkirako prestatzen. Duen xedea, Ortzai antzerki-dantza konpainiaren egonkortasuna eta aldi berean, Euskal Herrian erreferentzia bilakatzea.



t. ainhoa arriaga
a. edorta sanz

**Urte asko eman dituzu Euskal Herri-
kanpo formakuntza lanetan. Hala ere,
bueltan etorri zara proiektu berri honi
aurre egiteko eta Gasteizen sortu duzu
Ortzai antzerki laborategia. Zergatik
hemen?**

Betidanik hemen egitea pentsatuta neukan. Ni gasteiztarra naiz, joan nintzenetik itzul-
tzeko nahia neukan. Nahiko triste joan nin-
tzen Gasteiztik eta betidanik hemen bizi
nahi izan dut, baina hemen ez zegoen nik
nahi eta behar nuena eta horregatik egin
nuen alde. Orain, bueltatzerakoan nire
asmoa zen hemen sortzea nik nire garaian
behar nuena eta ez zegoena.

**Zer izan zen orduan laborategia sortze-
ra bultzatu zintuena? Nondik etorri zen
ideia?**

Zorte handia izan dut beti, egia esan.
Izugarrizko lana egin dut maisu hoberenak
izateko, denetarik lanak egin ditut. Maisu
horiengana jo dut, berdin zitzaidan Parisen,
Madriren edota Londresen egotea, euren bila
joan naiz beti. Bi faktoreek eragina izan
dute, gogor lan egin dut eta bestalde zorte
ona izan dut. Aitzitik, beste askok nik baino
gogorrago lan egin izan dute eta ez dute
lortu maisu horiekin ikastea. Gasteizera ika-
sitako guztia ekarri nahi nuen, garrantzitsua
iruditzen zitzaidan horrelako zerbait hemen
egotea.

**Hain proiektu handia izanda, suposa-
tzen dut zailtasunak topatuko zeni-
tuela bidean, zein motatakoak?**

Mota guztietako zailtasunak. Adibidez, ez
daukagu erakundeek emandako laguntzarik.
Egia esan, hemen ez dago benetako antzer-
ki kulturarik. Oso jende gutxi daki antzerkia
egiteak dakarrena eta eskatzen duena.
Antzerkigintza oso bide luzea da, zorrotza
eta zaila. Arte bat da, opera, musika edo
dantza bezala eta jendeak askotan ez ditu
modu berean ikusten. Orduan erakundeek
askotan ez gaituzte entzuten. Gertatzen
dena da, gazta oso ondo moztuta dagoela,
eta inork ez duela bere zatia arriskuan ikusi
nahi. Hortaz, oso zaila da sartzeara.



**Aktorea, zuzendaria, autorea, irakas-
lea... Non moldatzen zara hobekien?**

Aktore, dudarik gabe. Ni aktorea naiz, beti-
danik. Txikitatik aktorea izan nahi nuen eta
hori da nire ikaskuntza, nire lanbidea eta
nire bizitza. Baina zuzendaria ere izan naiz,
proiektu bat ateratzeko beharrezkoa zelako,
bestela inork ez zuelako egiten. Irakastea,
bestetik, betidanik gustatu zait; egia esan,
oso polita da.

**Zer da zailagoa, antzeztea edo antzez-
ten irakastea?**

Irakastea. Zuzentzea da gogorra, irakastea
da ardura gehien eskatzen duena. Eta poza
ematen didana, emozioa, aktore gisa aritzea
da.

**Iker Ortiz de Zaratek euskara zaintzen
du bere ekoizpenetan...**

Momentu honetan euskarazko gauzatxo bat
ari naiz idazten. 'Euskabaret' egin nuenean,
nahasi egin nituen bi hizkuntzak. Shakes-
peare-n 'Antonio y Cleopatra' egin genuene-
an, pertsonaia batzuk euskaraz aritzen
ziren. Beti sartzen ditut euskarazko zertze-
lak. Azken honetan gehiago, oso gizarte
konplexua erretratatzeko duelako. Alde bate-
tik, erromatarrek daude; bestetik, egipzia-
rrak. Orduan oso erraza izan nuen egipzia-
rren etxean euskara sartzeara.

**Askok eta luze hitz egin da antzerkiaren
krisiaz, hala ere, bere publikoa manten-
tzea lortzen du. Zure ustez krisian al
dago?**

Eta jarraituko du publikoa mantentzen.
Antzerkigintza oso bide zaila da, oso arte
baztertua da. Bestalde, profesionalak dago-
kienean ere, etxetik bertatik asko dago egite-
ko. Ez da egoten arriskua hartzeko asmorik,
beti gaude laguntzen zain edo laguntzen
bila. Hauek barik ez dugu ezer egiten.
Iniziatiba pribatua oso garrantzizkoa da eta
gu geu hobetu beharrean gaude.

Ortzai antzerki laborategia

Hirugarren ikasturtea da, Ortzai antzerki
laborategia martxan dela. Iker Ortiz de
Zarateren zuzendaritzapean sortu zen, "kali-
tatezko arte dramatikorako zikloa" gasteizta-
rrei eskaintzeko asmoz, eta hala izan da.
Laborategiaren filosofia nagusia, eskolak
ikasleei egokitzea da eta ez alderantziz. Hau
izan da Ortzai, laborategi izendatzearen
arrazoi nagusia, hain zuzen. "Maila altuko
eskola da, hala ere, ikasleen beharrak ase-
tzen saiatzen gara eta ez bakarrik kalitateari
dagokionez, baita ordutegiari eta jarraipen
pertsonalari begira ere."

Ikasturte honek hainbat berrikuntza ekarri
ditu laborategira. Esate baterako, gazteen eta
helduen taldeei txikienean taldea gehitu zaie.
Umeentzako ikastaroak jarri dituzte abian
ilusio eta poztasun handienarekin, nahiz eta
honetarako hartu behar izan duten lana han-
dia izan dela onartzen duten. "Ondo antola-
tu eta pentsatu behar ziren gauzak, antzer-
kiaz gain haurrak ezagutu behar dituzu".
Ikastaroak ez dituzte hizkuntzaka banatzen,
eskolak euskara eta gaztelera tartekatuz
ematen dituzte normalean, hala ere, taldea-
ren arabera izan ohi da hau. Haurren
talde hauetan adibidez, euskaraz aritzen
dira. Euskararekiko inplikazio nabarmena
adierazten du antzerki eskolak. "Euskal eta
erdal taldeak eginez, erdal taldeetakoek eus-
kara entzun ere ez lukete egingo. Nahasten
badituzu, gauza erakargarriak esanez, azke-
nean erdaldunak motibatu egiten dira", azal-
tzen du Iker Ortiz de Zaratek.

Honetaz gain, beste erronka garrantzitsu
bati eutsi behar izan diote, irailaz geroztik
lokal berrian ari baitira. Lehenengo bi ika-
sturteetan, Florida Zinemaren egoitzan oso
gustura egon direla aitortzen dute, baina
jada txiki gelditu zaie eta Alde zaharrera era-
man dute euren pasioa. Pintore kalean hasi
zuten ikasturtea pozaren pozez. "Hasieratik

erronka berriei so

Imanol Fernandez

Imanolen bigarren ikasturtea da Ortzai laborategian. Txikitatik gustatu zaio antzerkigintza eta horregatik, ia eskola iragartzeko afixa ikusi zuenean zalantza barik animatu zen. "Esperientzia oso polita eta oso ona da, asko gustatu zait eta horregatik errepikatu dut", dio Imanolek. Nahiz eta irakasgai guztiak gustuko dituen, interpretazioa da bere kuttunena, disfrutatu egiten du. Antzerkigintza oso gustuko duen arren, Imanolek ez du berarentzako irtenbide profesional bezala ikusten, "nik hau hobby modura egiten dut".



Amaia Cid Martin

"Gauza onak, gauza txarrak, momentu onak, momentu txarrak... denetarik bizi dugu hemen", azaltzen digu Amaiak. Amaia oñatiarra da eta betidanik izan du antzerkigintza ikasteko gogoia, baina bere herrian ez omen dago horretarako aukerarik. Horregatik etorri zen Gasteizera, Ortzai antzerki laborategian probatzera. "Zelakoa den ikusi eta azkenean jarraitu eta jarraitu egin dut". Oso gustura dago laborategian eta ikasten jarraitzeko izugarrizko gogoia du. Etorkizunean, Londresen ikusten du bere burua, arrakastaren ateak irekiko dionaren bila.

kokatu nahi genuen hemen. Alde zaharrean, baina nahiko zaila izan da, ez dagoelako lokal askorik. Oso pozik gaude, oso lokal ona eta ederra da".

bi hizkuntzak nahasten badituzu, gauza erakar- garriak esanez, azkene- an erdaldunak motibatu egiten dira

Ortzai-ko ikasleek errekonozimendu handiko irakasleak izateko parada dute proiektu honekin. Bestiak beste, interpretazioa, antzerkiaren teoria, kantua, dantza eta esgrima lantzen dute maila oso altuko profesionalekin. Gainera, ikasleek eurek ikasitakoa praktikara eramateko aukera ere izaten dute Katarbeltz antzerki-dantza talde iraunkorren bitartez. "Ikasleei aukera ematea eta bide batez taldera jende berria eta freskoa eramatea da gure asmoa".

ortzai antzerki laborategia

- antzerki hezkuntza
- gazte eta helduak / haur eta gazteentzako hastapenak
- goizez eta arratsalde
- zuzendaria: iker ortiz de zarate
- arte zuzendaria: eduardo suso
- ikasle kopurua: 20 (horietako batzuk jada maila profesionalerako jauzia eginda)
- talde txikiak, adin mugarik ez
- pintore kalea, 39 – gasteiz / 945203845-677336012-650309639
- ortzai@hotmail.com / www.ortzai.com



[MUNDUARI MUNDO proiektua]

Ander Elorza zinemagilea:

"Leku berri batera goazenean hutsetik hasi eta nahi dugun pertsona izan gaitezke"

Ander Elorza eta Jon Urdangarin irailaren erdialdetik ari dira Australian Iñaki Albitxuriren abenturak jarraitzen. Euren dokumental proiektuko protagonistaren erara bi gasteiztar hauek bidaia aukeratu dute ametsaren bidean. Dokumentala gauzatu bitartean, Joseba Elorza taldekidea Gasteizen geratu da eta berak gaurkotzen du 'Munduari Mundo' istorioaren pasartearen izen bereko bloga. "munduarimundo.com webguneak eta bidaia hau amaitzean ekoiztuko dugun filmak egitasmo oso bat izan nahi dute; autonomoak baina elkarrekin oso bat egiten dutenak", diote sortzaileek.

Ander Elorza Urdangarin

1977ko apirilaren 5ean Gasteizen jaioa. Momentu honetan langabezian baina 5 urtez Bartzelonako Euskal Etxean euskara irakasle aritua. Ikasketak: Euskal Filologia Gasteizen eta Zinema ikasketak Bartzelonako C.E.C.C. eskolan.

Jon Urdangarin Meabe

1982ko abenduaren 12an Gasteizen jaioa. Lanbidez argazkilaria Quintas Argazkilariak enpresan. Ikasketak: Argazkigintza Andoaingo Zine eta Bideo eskolan.

Joseba Elorza Urdangarin

1983ko maiatzaren 21ean Gasteizen jaioa. Radio Vitoria irratian egiten du lan soinu teknikari. Ikasketak: Soinu ikasketak Andoaingo Zine eta Bideo eskolan.



t. josune velez de mendizabal

a. munduari mundo

GEUrekin elkarriketa egin orduko Ander eta Jon Australia ekialdeko kostaldean zeuden, Queensland izeneko lurraldean, Brisbane hirian grabaketan. Handik Ander Elorzak euren "road movie" delakoaren ibilbidearen berri eman digu. "Momentuz alde on asko eta traba gutxi. Jendea oso atsegina da, nahiz eta gure ingeles maila nahiko eskasa izan eta haien ahoskera guztiz berria izan guretzat. Inkomunikazio une desatseginen bat sortzen denean izaten da momenturik okerrrena, orduan eta, tarteka, animaliaen bat hilgarria den ala ez garbi ez daukagunean", dio umorez.

Iñaki Albitxuriren bidaiaaren eta liburuaren nondik norakoak filmatuko dituzte Anderrek eta Jonen dokumental bat egiteko asmoz. Euren ideia gauzatzeko, berriz, apustu handia egin du bikoteak: "Gastu handia ekarri digu honek guztiak: bidaiak, grabaketa material berria, egonaldia... Aurreztutako

diruarekin bakarrik ezin genion aurre egin horrelako inbertsio bati eta kreditu bat eskatu genuen. Gure asmoa, diru kontuei dagokienez, ahalik eta diru gehien berreskuratzea da, kontziente izanik formatu honetako film batek eman ditzakeen etekinez". Gasteiztarrek ordea, ez dira oldartzen eta ilusioz ari dira euren bidaian. "Maila profesionalean ezagutzera eman eta ate batzuk ireki ahal izatea espero dugu. Edonola ere, lana eta dirua balduta ere, balantzea orain arte ezin positiboagoa da". Horra hor ba!

Zerk eraman zaituzte bidaia hau egitera?

...Ez da batere erraza galdera horri erantzutea. Neurri batean, bidaiaaren eta proiektuaren muina galdera horretan bertan datza. Gu galdera hau bera luzatzen ari baitezake bidaia izaten aurkitzen ditugun elkarriketatuei. Sakonegi joan gabe, nik neuk erantzun dezaket nire bizitza gustatzen ez zitzaidan dinamika bat hartzen hasia zela eta aldaketa baten premia nuela. Jonen kasuan, nahiz eta Gasteizen gustura egon beti nahi izan du horrelako bidaia bat egin, eta aukera honen aurrean ezin ezetz esan, bestela luzaro damutuko zatekeen.

Zer da 'Munduari mundo' ikus-entzunezkoa?

Dokumental itxura du baina ez da dokumental hutsa; fikziozko elementuak nonahi aurki daitezke baina ez da fikziozko film bat. Esan genezake "road movie" dokumental fikziozko bat dela, halere egia esan, etiketa horiek ez dute garrantzi





handirik filma definitzerako garaian. Gaia, bidaiaren beharra eta bere motibazioak lira-teke. Jakin badakigu pertsona bakoitza mundu bat dela eta ez dagoela lege orokor bat egiterik hain gai zabalean, alabaina bidaiari guztien artean zerbait komunean badagoela aurreiritzita abiatu gara. Zer den ez dakigu, agian bilaketa edo beharbada ihesa, edo biak batera, baina irrikitan gaude bidaiari horiek guztiek kontatzeko dutenaz hausnartzeko.

Hizkuntzari dagokionez, euskaraz izango da portzentaia handi batean, izan ere, irudien gainean Iñaki Albitxuri narratzailearen ahotsa entzungo baita liburuiko zenbait testu irakurritz. Bestalde, elkarriketetan erabiliko hizkuntza aldatu egingo da elkarriketatuaren ama-hizkuntzaren arabera.

Eta zer kontatu dezakezu Iñaki Albitxuri, filmaren protagonistaz?

Iñaki Albitxuri idazle gazteak Australiara eginiko bidaia eta bere liburuaren kontaketa dokumentatzera goazen heinean, topatutako bidaiariei galdera sorta egingo die Iñakik. Izan ere, Australian badago "backpacker" (motxilarekin aurrera eta atzera dabilen bidaiaria) azpikultura sakon bat eta beraz, jorratu nahi dugun gaiaz luze hitz egin dezakeen jende interesgarri asko. Pertsona berri bat izateko asmoz abiatu da bidaiari. Izan ere, leku batean denbora luzea ematen dugunean gure izaera, gutaz espero dena, gehiegi moldatzeko arriskua izaten dugu. Leku berri batera goazenean, aldiz, hutsetik hasi eta nahi dugun pertsona izan gaitezke, hasiera batean behintzat. Nik uste Albitxuriri gertatzen zaiona dela bere izaera moldatuegi dagoela bere betiko ingurunera. Horrek ere ekarri du, nolabait, liburu bat



idazteko bere betiko ametsa atzeratuz eta nagituz joatea, eta gehiegizko egokitzapen prozesu honek beldurtu egin du.

‘Munduari bira eman dio munduak’ da Iñaki Albitxuri idazten hasi berri den bidaia liburuaren izenburua. Orain dela hamar urtetik hona jasotako hainbat ohar batu eta Australiara bidaitzea erabaki du aspaldiko proiektu honi ekinez. Hogeita hamar urte ere baditu Albitxurik... Dokumental honi ekiteko zure azalpenak entzunda eta Albitxuriren deskripzioa ezagututa pertsonaiekin parekotasunak suma daitezke, edo?

Bion kasuan parekotasunak asko dira, baina komunean duguna, agian zenbait beldurri aurre egiteko beharrean datza. Beste munduko puntara alden du denbora luze baterako, hizkuntz zailtasunak, kultura arras ezberdinak... Horrelako inguru batean moldatu behar izateak beti erakarri eta beldurtu nau modu beretsuan.

Hortaz, ametsa gauzatzen?

Nire kasuan, zalantzarik gabe. Gainera egunetik egunera argiago ikusten dut nire garai bateko dokumental bat egiteko ametsa, eta gaur egun Australian bizitzen ari naizen errealtatea oso antzekoak direla. Proiektu

honekin hasi nintzenean intuizio hutsez hasi nintzen. Ez nekien Australiari buruz ezertxo ere, ez nuen "backpacker" fenomeno ezagutzen... Eta hara non aurkitzen naizen bidaiari buruzko dokumental bat egiten bidaiarien peregrinazio gotorlekuetako batean. Jonek ere amets bat betetzen ari dela sentitzen du, egunerokotasunetik atera eta horrelako bidaia aberats bat egiterakoan.

Eta behin elkarriketa horien guztien grabazioaren ondoren, zer? Noizko espero bukatuta eta estreinatzeko prest egotea?

Horren ostean edizio prozesua dator. Ordurako grabatuak izango ditugun ehundaka orduak berrikusi eta muntatzen hasteko garaia. Gure asmoa hasiera batean grabatzen gindoazen heinean editatzearena zen, baina arazo teknikoengatik ezinezkoa izaten ari da, eta bidaiaren osterako utziko dugu. Epe luzerik ez diogu jarri nahi post-produkzioari, baina txukun utzi nahi dugu, beraz bizpahiru hilabete izango dira grabazioaren ondoren. Ikusgai non izango den ez dago oraindik esaterik. Spiderman 4 botatzen duten ondoko zine aretoan gustatuko litzaiguke, eta despistaturen bat kokakola eta palomitekin gure filma ikustera sartzea ■

III Akademiak akademiakideak behar ditu Araban

Euskal literaturzaleen akademia honek III kide izango ditu, eta horietatik gutxienez 8 arabarrak izango dira. Momentuz, III Akademiak 73 kide ditu, eta horietatik 3 dira arabarrak, hirurak Gasteizkoak.

Sortu berri den III Akademiak akademiakide berriak behar ditu Araban. III Akademia Euskal Herri osoko III kidek osatuko dute, eta horietatik gutxienez 8 Arabakoak izan daitezten nahi dute antolatzaileek. Une honetan III Akademiak 73 akademiakide ditu, eta horietatik 3 dira arabarrak.

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna da III Akademia martxan jarri duena. Euskal literaturzaleen lehenengo akademia da, eta euskal literaturgintzan irakurleari protagonismoa ematea du helburu. Hori dela eta, oraingoz, akademia horren funtsezko eginkizuna urtero Beterriko Liburua Ohorezko Literatur Aipamena hautatzea izango da. Sari horrek irakurleen artean gogokoen suertatu den liburua saritzen du 1996az geroztik.

Hasiera batean, sariaren agerkari gisa argitaratzen den Beterriko Liburua aldizkariko irakurleek erabakitzen zuten nori eman ohorezko aipamena. 2000. urtean irakurle horiekin Epaimahai Orokor bat osatu zen, eta orain, III Akademiarekin, epaimahai hori handitu eta Euskal Herri osora zabaldu nahi da. Beraz, hemendik aurrera, III Akademiako akademiakideak izango dira urtero Beterriko Liburua Ohorezko Literatur Aipamena nori eman erabakiko dutenak.

Zein libururi emango zenioke Beterriko Liburua Ohorezko Literatur Aipamena?

Horrela, III Akademiako kide denak funtsean honako eginkizun hauek izango ditu: urtean gutxienez bizpahiru liburu irakurri beharko ditu, urte horretan bertan euskaraz argitaratutakoak; liburuak irakurtzen doan heinean, horiei buruzko iritzia bidali beharko du akademiara (iritzia emateko modukoa iruditza bazea, noski), eta urtea amaitutakoan adierazi beharko du, bozka bidez, irakurri dituen guztietatik nori emango liokeen urte horretako Beterriko Liburua Ohorezko

Literatur Aipamena.

2006ko saria Karmele Jaio idazle gasteiztarak jaso zuen "Amaren eskuak" liburuaren gatik. Aurreko edizioetan saritutakoan artean daude, besteak beste, Ramon Saizarbitoria, Joseba Sarrionandia, Benardo Atxaga eta Pako Aristi.

Beraz, oraingoz, III Akademiako kideen egiteko nagusia urtero Beterriko Liburua Ohorezko Literatur Aipamena hautatzea izango da. Horrez gain, akademiakideek, sariaren agerkari gisa argitaratzen den Beterriko Liburua aldizkariko erredakzio batzordean parte hartzeko aukera izango dute, aldizkariaren edukiak zein izango diren erabakitzeko. Beterriko Liburua aldizkaria hiru hilean behin argitaratzen da eta, besteak beste, idazleei egindako elkarrizketak, liburuaren gaineko gomendioak eta akademiakideek bidaltzen dituzten iritziak jasotzen ditu. Horrez gain, III Akademiak urterako programa bat izango du, eta hor, akademiakideei zuzenduriko hitzaldiak, literatur solasaldiak, txangoak eta antzerako ekintzak eskainiko ditu.

Horrela, III Akademiako kide dena Euskal Herri mailako literatur akademia bateko partaide izango da, eta bere ezaugarrietan bakarra den euskal literaturaren ohorezko aipamen edo saria hautatzeko garaian, erabakitzeko eskumena izango du. Aipatu bezala, III Akademiarekin Manuel Larramendi Kultur Bazkunak irakurleari protagonismo gehiago eman nahi dio, euskal literaturgintzaren baitan irakurle soilarena baino paper aktiboago bat betetzeko aukera emanez.

Oraingoz hiru ordezkari Araban

Une honetan, III Akademiak 73 akademiakide ditu, eta horietatik 3 dira arabarrak, hirurak Gasteizkoak. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, III Akademiak gutxienez 8 kide arabar izan ditzan nahi du. Beraz, bertako euskal irakurleak akademiakide izatera

gonbidatzen ditu, Arabak ordezkaritza zabalagoa izan dezan III Akademian.

Horretarako, Gasteizko zein Arabako herrietako liburutegietara jo dezakete, hantxe aurkituko baitute III Akademiaren inguruko informazio zabalagoa, baita akademiakide izan nahiez gero horretarako bideak ere. Edo nahiago dutenak, III Akademiarekin zuzenean harremanetan jar daitezke nahi dutenean: 943 69 64 50 / belisari@topagunea.com

Akademiakideari eskatzen zaio:

- Urte osoan gutxienez bizpahiru liburu irakurtzea urte horretan euskal literaturgintzan argitaratutakoan artetik. Gehiago irakurri nahi baditu, libre da.
- Irakurritakoari buruz bere iritzia eman dezala. Iritzia bi hitzetan laburtua edo luzeagoa izan daiteke.
- Urtea amaitu eta berria hastearekin batera esan dezala irakurri dituen liburuaren artetik zeini emango lioken urte horretako Beterriko Liburua Ohorezko Literatur Aipamena.

Akademiakideari eskaintzen zaio:

- Irakurle huts izatetik areago, Euskal Herri mailako literatur akademia bateko partaide izan eta literaturaren munduan paper aktiboago bat betetzea.
- Bere ezaugarrietan bakarra den euskal literaturaren ohorezko aipamen edo saria hautatzeko garaian, erabakitzeko eskumena.
- Beterriko Liburua aldizkariko erredakzio batzordean parte hartzeko aukera.
- Larramendi Bazkunak urtean zehar akademiarentzat antolatuko dituen ekintza eta jardueretan parte hartzeko aukera (txangoak, ekitaldiak, literatur solasaldiak...)

Akademiakide izan nahi al duzu?

- Joan zaitez zure herriko liburutegira. Bertan aurkituko dituzu horretarako bideak.
- Idatz iezaguzu belisari@topagunea.com helbide elektronikora.
- Dei iezaguzu 943 69 64 50 telefono zenbakira.



Ipuin kontalaritza, hitzaren lilura

Ipuina, publikoa eta kontalaria. Hiru elementuek elkar behar dute ipuin kontalaritzan. Eta hiru elementu horien uztarketaren bidez, komunikazioa sortu egiten du ipuin kontalaritzak. Euskal Herrian bidea egiten doan jarduera da.

t. edurne begiristain

a. edorta sanz



ITZIAR REKALDE:

“Ahozko kontaketaekin lehen mailako komunikazioa sortzen da”

Kasualitatez sartu zen Itziar Rekalde Bermeoko gasteiztarra ipuin kontalaritzaren munduan. Antzerki eskolan ikasten ari zela narrazioari buruzko mintegi batean parte hartu zuen, eta harrezkero kontalaritzari buruz ikasten, irakurtzen eta praktikatzeko hasi zen.

Nondik ateratzen dituzu ipuinak?

Adi egoten naiz. Batzuetan autobusean entzuten dudana esaldi batetik sortzen dut, egoera berezi batetik, pelikula batetik, literaturatik, tradizio-tik..., leku guztietatik istorioak sortzen dira.

Saio bat prestatzen dudanean, beti dut ideia bat, eta ideia hori landu egiten dut, eta entzuten, irakurtzen eta bizitzan gertatzen zaizkidan gauzekin hornitu egiten dut.

Ipuin kontalaritzaren funtzioa entzulearekin komunikazioa lortzea baino zerbait gehiago da?

Bakoitzak bere funtzioa dauka. Norberak jakingo du zergatik kontatzen duen, zergatik eta zertarako kontatzen duen. Dena den, niretzat garrantzitsua da ahozko kontaketa-
ren bidez komunikazio hur-bila sortzen dela, lehen mailako komunikazioa. Eta horrek ez antzer-

kiak ez beste saiakera artistikoez ez dute hain garbi eta hain zuzen ematen.

Nor murgiltzen da hobeto ipuinaren barruan, haurrak ala nagusiak?

Adin guztiak berdintsu murgiltzen dira ipuinean, betiere aurreiritziak alde batera uzten baditugu. Adinak ez du inolako garrantzirik. Komunikatzeko, zerbait sentitzeko edo zerbaitez liluratzeko gogoia duen edozeinentzat dago zuzenduta ipuina.

Amaiera onak izaten dituzte zure ipuinek? Irakaspenik ematen duzu?

Ez bereziki. Ez nabil normalean amaiera gozoa edo mikatzaren bila. Baina istorio bakoitzak badu bere logika eta bere bukaera, eta badu bere hasiera. Nire ipuinak gehiago gerturatzen dira bizitza errealerara, eta normalean ez dute oso bukaera zorionsua, baina ezta tristea ere. Norberak hartzen duen moduaren arabera dira.

Nola ikusten duzu ipuin kontalaritzaren egoera Euskal Herrian?

Ikusten hasiak gaude. Kontalariak beti egon dira, garai batzuetan arrakasta handiagorekin, gero hainbat urtetan apur bat baztertzen edo ezkutatzen joan ziren, baina beti egon dira eta beti egongo dira. Beti izan da oso jarduera bakanakoa, eta orain hasi gara biltzen. Nik esango nuke ondo jaioak garela, kolektibo moduan jaio berriak garela, eta apurka joango garela gure tokia egiten. ■



PELLO AÑORGA:

“Ahotsean ere badago kontalarien gorputz guztia”

Oiartzungo Hautzaro eskola utzi, eta ipuin kontalaritzan buru-belarri sartu zen duela urte dezente Pello Añorga oiartzuarra. Jarduera terapeutikotzat du ipuinak kontatzea.

Zein iturritatik edaten duzu ipuinak kontatzeko?

Gehienbat ahozko tradizioetik, baina baita ere albumetatik, liburuetatik,... Ipuin bat gustuko izanez gero, nire biltegian gordetzen dut, hobe esanda, nire mintegian gordetzen dut. Hortik kanpo ateratzea eta landatzea, hots, kontatzea, prozesu luzeagoa da. Badira ipuin batzuk deitu egiten dizutela, batzuen aroma hain sarkorra da, deitu bezala egiten dizutela, eta hainbeste itsasten dira zure barruan berehala nahi duzula kontatu.

Ipuinak komunikazioa sortzeko erabiltzen dira, baina horrez gain, funtzio batzuk ere izango dituzte, mezu batzuk...

Kontaketak funtzio anitza dauka. Nik ipuinak kontatzerakoan zerbait partekatu nahi izaten dut, emozio bat sortu, komunikatu. Baloreak helaraztea beste alor batean jartzen dut, itzalean bezala, ez da lehentasuna. Kontatzen dudanean nire helburua da zerbait komunikatzea, emozioen bat sortzea, gauza eder bat,... Egia da kontatzerakoan gai batzuk ikutu daitezkeela, baina ni espreski ez noa horretara. Ni zerbait hunkitzen banau, emozio hori beste norbaitekin partekatu nahi izaten dut. Besterik ez.

Ipuina kontatzerakoan ahotsarekin batera, gorputza ere erabiltzen


duzue. Kontalaria antzezle bilakatzeko dela esan daiteke?

Gaur egunean norberak erabakitzen du zein bide hartu. Baina, nik ez dut gorputza gehiegi mugitu behar. Eserita edo zutik jartzen naiz, eta kontatu egiten dut. Ipuina kontatzen duzunean garrantzitsua da gorputz guztiarekin kontatzea, eta nire ustez ahotsean ere badago kontalarien gorputz guztia. Kontalarien begirada batean ere egon daiteke gorputz guztia. Edo unibertso guztia egon daiteke islatua. Nire ustez oso inportanteak dira ahotsa eta gorputza, baina baita isiltasuna ere. Kontalariaren gorputza zenbat eta hutsago egon barnetik eta zenbat eta erresonantzia gehiago eduki, ahotsak eta kontuak berak gorputz gehiago izan dezakete, eta horretarako ez da asko mugitu beharrik.

Adinen arabera sailka al daitezke ipuinak? Hau da, haurrentzako ipuinak haurrentzat dira, eta helduentzat helduenak?

Muga hori da ez batere finkoa. Ipuin batzuk oso sinpleak dira eta berdin iritsi daitezke haurregana eta helduengana. Batzuetan haurrentzat kontatzen ari

zara, baina ondo egiten baduzu, bertan baldin badago heldu bat ere hunkitu dezakezu. Ipuinek, berez, ez dute adinik. Literatura ongi kontatzen baduzu, ez dago mugarik, ez dago adinik. ■



KUDEA ENPRESA

Softwarearen giza faktorea

Ausardia behar da testuinguru lehiakor batean berezko proiektu bat aurrera eramateko. Konpromisoa ere, ezinbestekoa. Ausardia eta konpromisoa dira KUDEA enpresako kideek azkeneko zortzi hilabeteotan, proiektua sortu zenetik, erakutsi dutena. Orain, bigarren urrats bati ekingo diote. Euskarari helduko diote. Euren proiektua euskaldunduko dute, halaber, produktu euskaldunak sortu eta merkaturatuko dituzte.



t. naroa cuesta
a. edorta sanz

Konpromisoa eta ausardia

2007 urteko martxoan jaio zen KUDEA, Gamarrako INBISA enpresa parkean. Softwarearen munduan giza faktorearen beharra eta balioa aldarrikatzea eta bestetik, irudiaren garrantzia azpimarratzea izan ziren orduan eta badira gaur ere, euren helbururik behine-nak.

Irudia eta informazio teknologien esparrua aurretik ezagutzen zuten bertako lankide ugari-rik. Izan ere, Telbask enpresaren barnean sistema, informatika, diseinu eta irudiaz aritzen zen departamentuko kideak dira gehienak. Enpresa baten barnean zeregin zehatza zuten. Egun, aldiz, enpresa berria jarri dute abian. Enpresa berria eta gaztea, izan ere, lankideen gehiengoak 30 urte ere ez ditu bete.

Softwarea, giza ikuspuntutik

Software hitza askorentzat arrotza bada ere, enpresa gehienek eguneroko lanean ezinbes-

tekoa dute. Ordenagailuaren atal logikoa izendatzeko erabiltzen den terminoa da softwarea. KUDEA, 'SAGE LOGIC CONTROL'-en banatzailea da, software kudeaketan lehena. Bestalde, berezko produktuen aldeko apustua egin dute, hala nola, 'Kudea transporta' edo 'Kudea gestiona'. Iban Askasibar, zuzendari orokorraren esanetan, "sektore konkretuetarako oso aplikazio errazak sortzen ditugu; teknika kenduz eta pertsonengan pentsatuz".

Bada, softwarearen munduaren barnean soluziobide anitz daude. Produktu garestiak eta aplikazio konplexuak merkaturatzen dira enpresa batzuek eskatzen baitituzte. Ostera, badaude horren aplikazio korapilatsuak behar ez dituzten enpresa asko. KUDEAk enpresa txiki eta ertainetan izan nahi du eragina. ETE (Enpresa Txiki eta Ertaina) askotan informatika kultura hedatzear dago oraindik, horregatik, aplikazio sinple eta errazen beharra dute. Hori da, hain zuzen ere, KUDEAk eskaintzen dituen aplikazioen bereizgarria. "Pertsonengan pentsatu eta nahi dutena ematen diegu", azaldu du KUDEAko zuzendari orokor Iban Askasibarrek.

EUSKARA: KONPROMISO ETA ABANTAILA LEHIAKORRA

Jakin badakigu, euskarak esparru ugari dituela oraindik deskubritzeke. Hala nola, informatika eta teknologia berriek eskatzen dituzten aplikazio eta tresnen mundu berri hori. Zortzi hilabeteko ibilbidea egin ostean eta nolabaiteko lasaitasuna lortuta, euskarari eusteko ordua heldu da KUDEAko lankideentzat. Iban Askasibar, zuzendari orokorraren aburuz, "programak, softwarea..., gure proiektu eta produktuak euskaraz izatea da gure helburua. Batetik, euskarak berak eskatzen duelako; bestetik, alde komertzialetik ere abantaila izan daitekeelako". Era berean, webgunea euskaratzeko asmoa dute. Hortaz, lehenengo software euskaldun eta arabarra martxan dago jada.



Kudea enpresako lan-taldea. Eskubian, Iban Askasibar zuzendaria

Irudi baten indarra

Batetik, produktu informatikoak ekoizti eta saltzen dituen enpresa dugu KUDEA. Baina, zer-nolako irudia daukate produktu horiek? Horretaz ere arduratzen dira. "Zure irudiak zure negozioaz hitz egin dezala" lelopean ikusgai izateko beharrezkoak diren elementuak eskaintzen ditu KUDEAk. Produktu ezin hobeak erē, publizitate eta irudi onaren beharra baitauka. Publizitatea, diseinu grafikoa eta enpresen irudi korporatiboa dira, besteak beste, irudiaren barnean kokatzen diren zeregin desberdinak.

Lana eta bizitza bateragarri

Lehiakorra da gure mundu hau, bai. Are lehiakorragoa, teknologia berrien inguruan sortutako esparrua. Bertan, enpresak etengabe handituz joan dira azken urteotan eta horrek, egitasmo berrien agerpena oztopatu egin du.

kudea-k enpre- sa txiki eta ertainetan izan nahi du eragina

**'zure irudiak
zure negozioaz
hitz egin dezala'**

**"gure proiektu
eta produktuak
euskaraz izatea
da gure helbu-
rua"**

**lehenengo soft-
ware euskaldun
eta arabarra
martxan dago
jada**

Iban Askasibar, KUDEAko zuzendari orokor-
rrak esan bezala, "konfiantza irabazten joate
da gure aukera bakarra. Hasieratik bezeroare-
kin konpromisoa hartzen dugu eskatutakoa
aurrera ateratzeko".

Halaber, Interneten egotea eta ikusgai izatea
premiazkoa da XXI. mende honetan.
KUDEAren webguneak "bisita asko ditu eta
horretan saiatu behar gara", dio Iban Aska-
sibarrek.

Izan ere, enpresek euren ingurune natura-
len ezaugarriak ezagutu eta bertan lehiakor
izaten saiatu behar dute. Are gehiago, euren
filosofia propioari eusten ahalegindu behar
dira. Ildo horretatik, KUDEA enpresaren filo-
sofian bizitza kalitateak berebiziko garrantzia
du, eta horretarako, lankideen arteko harrema-
nak zaindu behar dira. Iban Askasibarrek esan
bezala, "bakoitzak bere ardura dauka eta hor-
tik aurrera denon artean hartzen dira erabaki
garrantzitsuak" ■

www.kudea.net

Elbrus 5.642 M. Kaukaso, Errusia

Abuztuaren 25ean, 12:15ean (Errusiako ordua) Europako mendirik garaienaren gailurrera iritsi nintzen. Iosu, Ion eta Victorrekin joan nintzen, guztiok interes berbera baikenuen: Errusia ezagutzea eta hango mendiak nolakoak diren ikustea.

t. | a. santi carvajal

Moskun egun bat egin ondoren, Kabardino-Balkaria eskualdera abiatu ginen hegazkinez eta Cheguet-en (2.145 m) hartu genuen ostatu. Gure igoeran erabili genuen gidariak altuerara egokitze eta ingurua aztertze-ko egun bat prestatu zigun, eta Cheguet-Karabashi mendira (3.404 m) igo ginen. Mendi horretatik gure helburuaren kokapenaz gozatu genuen.

Hurrengo egunean teleferiko batean eta teleaulki batean Barrels-etaraino (3.790 m) igo ginen (*Las Barrels* isurkarien garai bateko gordailuak ziren, zilindro-formakoak, sei oheko aterpe bilakatuta), eta hantxe ezarri genuen gure kanpamentua. Arratsaldean, elurte baten ondoren, altuerara egokitze ibilaldi bat egin genuen, eta garai batean Pruit II mendia zena baino apurtxo bat gorago igo ginen, 4.100 metrora; ondoren, Barrels mendietara itzuli ginen berriro.

Hurrengo goizean Pashtukovako harkaitzetaraino igo ginen, 4.800 metro ingururaino, eta batek baino gehiagok altuerako kanpamentua bertan ezartzen duela ikusi ahal izan genuen, igoera azkarrago egin ahal izateko. Barrels mendietara itzuli, afaldu eta lotara joan ginen, hurrengo egunean gailurra egiten saiatu behar baikenuen.

Goizeko ordu bietan altxatu eta, ahal izan genuen moduan, gosaria irentsi genuen, hiruetarako prest iza-

teko. Pashtukovako harkaitzetara baliabide mekanikoak erabiliz igotze-ko eskaintzari berriro uko egin ondoren, gailurrerantz abiatu ginen, gailurra behetik oinez saiatzen bakarrak izango ginela jakinda. Ikuspuntu klimatikotik, gauean egindako igoera oso ona izan zen, egunsentian baino ez genuen hotz apur bat sumatu. 4.850 eta 5.000 metro artean mendi hau inguratzen duten paisaia ederrez gozatu ahal izan genuen. Une horretatik aurrera laino xehe batek inguruak ikustea galarazi zigun. 5.300 metrora indarrak berreskuratzeko geldialdi bat egin eta gero, 200 metroko pala maldatsu batean gora abiatu ginen; horren ondoren beste pala ari-nago bat igaro genuen, eta hortik gailurrera iritsi ginen.

Gailurrean argazki batzuk atera ondoren, lainoak ingurua estaltzen zigurenez eta hozteko arriskua handia denez, beherantz abiatu ginen berehala. 5.200 metroan kranpoiak kendu behar izan genituen, berotzen hasi eta elurra bigundu egin baitzen, eta oso deserosoa baita horrela ibiltzea. 3 ordu eskasetan jaitsi ginen Barrels mendietaraino, eta bertan sukaldariak eta beste gidari batzuek zorianak eman zizkiguten.

Hurrengo egunean Cheguet-era jaitsi ginen berriro, gure lorpenaz gozatzeko eta hurrengo egunetan mendi horren inguruko haranak ezagutze-ko.

Aurreikusitako planen arabera irten zen guztia, eta horregatik, gustura gaude egindako lanarekin ■



Espedizioaren egunerokoa. ABUZTUA

- 19.- Gasteiztik Madrilera autoan joan gara, eta han Moskurako hegazkina hartu dugu. 5 orduko hegaldiaren ondoren, furgonetan joan gara hotelera, goizeko 1:30ean.
- 20.- Moskuko erdigunera bisita.
- 21.- Moskutik Mineral Vodyra hegazkinez; ordu eta erdiko hegaldia eta 3 ordu furgonetaz Cheguet-eraino (Kabardino-Balkaria Errepublikak).
- 22.- Altuerara egokitze Karabashi-Cheguet mendia (3.404 m) igo.
- 23.- Goizean, furgonetan Azau-ra (25 min), bertan teleferikoa eta teleaulkiak hartze Barrels mendietaraino (3.790 m). Arratsaldean, altuerara egokitze, 4.100 metrora igo.
- 24.- Altuerara egokitze ekintzekin jarraitze, Pashtukova harkaitzetaraino (4.800 m) igo.
- 25.- Mendia egiteko saioa; gailurra 12:15ean. Jaitsi eta 15:00etan kanpamentura iritsi.
- 26.- Cheguet-era itzuli eta bertan afaria, gailurrera iritsi garela ospatzeko.
- 27.- Shkelda haranera irteera, bazkaria eta Albur- su haranera igaro.
- 28.- Terskol-etik postalak bidali eta Interneten nabigatu. Arratsaldean, ur karbonatutako iturburuak bisitatu.
- 29.- Cheguet-etik Mineral Vody-ra joan; han Moskurako hegaldia hartu eta handik hotelera (45 min)
- 30, 31 eta 1.- Mosku bisitatu.



m. mundina



zutabea



Legutio 1936

t. erlantz urtasun antzano. historialaria

Udazkena da, ez bedatsa. Legutio, 1936ko azaroaren hondar egunak. Eguraldia medio, euskal gudariak egun batzuk galdu dituzte, eta buruz baino bihotzez presaturiko plangintza urduria kolokan da. Pixkat hobetu da zerua, baina, eta mugetako mendietarik Legutio alderat milaka gudari abiatu dira, Araba faxisten eskue-tan izan ez dadin. "La Ofensiva de Villarreal" hasi da. Dirudienez, 1936ko guda unerik kritikoenetakoa Euskal Herrian.

Abertzaleen kemen gorria alferrik isuria, haatik. Nahiz eta Legutio inguratu, eta Legutioko jende xumea, oraindik euskalduna zena, biziki ospatu, abenduan gibelerat jo behar izanen baitute, eta arabar zelaietan ehundaka gudari hilik geratu zen. Urtarrila bitarte, halere, tiro hotsak entzun ziren. Ondoko Albertia mendi aldean eutsi zioten euskal gudariak 1937ko udaberria arte. Bilboko bidea era ezin bortitza-goan hartu zuen frankisten armadak haien defentsak deseginaraziz.

Albertia, Legutio, Araba askatu nahi eta bertan hil zen gudari anitz eta anitz EAE-ANVkoak ziren. Udazkena da. Hostoak orbeltzen dira, urrutiko udaberrian, bedatsa delarik, kimuak hostoberritzeko.

Gasteizen Lauaxetaren azken hatsaren bersortzeko ■

"Arabako herri izenak aldatu dira historian zehar?" (XVIII)

Bitxia dela iruditzen ahal bazaigu ere, irakurle, hizkuntza batek bertze bat "jaten" duenean, ezin asmatu zer gertatzen ahal den "janda" suertatzen ari den hizkuntzaren izenekin. Zerbait txarra, hori ziur. Eta, erran beharrik ez dago, berdin hizkuntza gaixoaren toki ize-nekin.

Hor da gure arbaso hurbilek, euskara desagerrarazirik, "Respaldiza" deitu behar izan ohi dutena, hain zuzen ere, eta hain diplomatikoa den "diglosia" baino, "genozidioa" gordina dei diezaigun, jada XV. mende-an "Ruiz de Respaldiza" abizen gisa agertzen dena.

1371. urtean, halere, "Arespaldiza" dugu agiri zaharretan, oraindik 1770 aldean "Respaldizar" omen zena. Zer erranik ez XII. mendeko "Reipaldizar" izenaz erreparatuz gero, edota, hau da hau, dagoenean bonbon, zer arraio, 1095eko "Arispaldizaca" irakurtzeko.

Euskara berreskuratzea bezalakorik ez dago, bertoko jendeak, etorkizunean, libreki, euskaraz nahi duen eran bere herriari dei diezaion. Hala bedi!

ERREXALA, hitz arabar petoa

t. kike fdz de pinedo [*]

Orain dela hainbat hilabete Kutxi edo Aiztogile kalean zegoen Bagare elkartean lekuan Errexala izeneko ireki zuten. Izen hau jende askorentzat ezezaguna bada ere, oso hitz arrunta izan bide zen lehengo gasteiztarrentzat. Horrela jaso zuen behinik behin Italiako Luca herrian jaioetako Nicola Landuchio bidaiari italiarrak 1562 urtean. Italiar honi zor diogu 'Dictionarum Linguae Cantabrigiae' izeneko gaztelania-euskara aurreneko hiztegia egin izana. Zantzu guztien arabera gure hirian burutu zuen eta grafiari esker badakigu hiru informatzailez baliatu zela. Emandako euskal hitzetan nabarmena da joera erdarazalea, hiriko merkataritza giro diglosikoaren lekuko, edota utzikeriaren seinale. Hala eta guztiz ere, gaur egun harribitxitzat jo dezakegu, orduko Gasteizko euskara ezagutzeko aukera aparta eman digu eta. Biltzen dituen 6.000 hitzen artean zuhaitza izendatzeko errexala behin baino gehiagotan erabiltzea deigarria da, are eta

gehiago Araban baino erabili ez dena jakinda. Hitz arabar petoa dudarik gabe. Ikus ditzagun hiztegian dituen agerpenak: árbol-errexala; arboleda-errexalac; agalla de árboles-errexalan agallea; box árbol-buxoa errexala; Brasil árbol-brasila errexala; castaño árbol-castanea errexala; corteza de árbol-errexalā açala; granado árbol-mingra-nea errexala; higuera-ficua errexala; hoja de árbol-errexalan orria; maçano árbol-sagarr-errexala; plantar arboles-errexal ifini. Arestian aipatu bezala begi-bistakoa da informatzaileen hiritar kutsua, nekazari batek ez baitzituen nahastuko hurrengoak: roble árbol-paguo-errexala; haya arbol-arecha. Eta ez dut uste itzulpen hauek ere emango zituenik: álamo blanco-errexal çuria; álamo negro-errexal valça. Ez da, ordea, Landuchiorena berba honen agerpen bakarra, toponimiak ere hitz honen arrastoa utzi baitigu Lautadan, Arratzu-Ubarrundian eta Trebiñun. Hona hemen hauetariko batzuk: erresala (Erentxun), erresaleta (Arburu, Matauku, Gamarra), erresaleteta (Ilarratza),

erresalde/resalalde (Arrieta), errizala (Andollu), erreisalpea (Gatzeta), erresalucea (Betoñu), erreixala (Betolatza). Beste hainbatetan euskararen galeraren ondorioz hasierako bokala galduta iritsi zaizkigu: errexalza/rexalza/rejalzo (Miñao Nagusian), resala (Arangiz), resellea (Otazu), rejalar (Erretana), resalza (Uribarri Arratzua, Uribarri Nagusia), resalcea (Jungitu), rezalday/rizalday (San Martin Galbarin), rexalzaya (Amarita), rejalde (Dordoniz). Eta desitxuraturako aldaerak dirudite: rejarduya (Bajauri), reciel (Villanueva Tobera), recial (Argote).

Bukatzeko esan dezagun, bere etimologia ez dela argia. Mitxelena, antza, mailegua zelakoan zegoen. Irigoientzat berriz, "lexar"-etik ("lizar"-en mendebaleko aldea) zetorkeen eta metatesis baten bidez lexar>rexal bihurtu, eta gero euskaraz ohikoa den legeaz, hasierako bokala gaineratuz. Eta azkenik, zuhaitzaren balioa hartuko zuen aretxa(aritza)-rekin hainbat lekutan gertatu zen bezalaxe. Errexa, ala?■

[*euskal filologian lizentziatua & irakaslea]



MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33
Gasteiz





mundua lo dagoen bitartean

abenduak 3.
euskararen eguna
principal antzokian
20:30
doan

(sarrerak azaroaren 19tik
aurrera araba kulturaleran)

gidoia & zuzendaritza:
patxi zubizarreta

aktoreak:
iban garate
mikel losada
maria uriarte
felipe barandiaran

parte-hartze berezia:
nerea garmendia
agurne anasagasti
ane muñoz

pianoan:
joserra senperena



“bizitzan bi motako hitzak daude: egunekoak eta gauekoak. eguneko hitzek gure pentsamenduarekin dute zerikusia, gure arrazoiarekin, gure erabakiekin. gaueko hitzak, berriz, geure sentimenduetatik sortzen dira, geure irrika eta desioetatik, eta askoz ere libreagoak dira, benetakoagoak. hala bada, ongi etorri gaueko hitzen hitzordura, ongi etorri mundua lo dagoen bitartean irrati saiora, sentimendu, irrika eta desioen ordura. goizaldeko ordu bata eta hogeita hamazazpi minutu diren honetan, mikrofonoak zabalik dituzu.”

antolatzaileak

babesleak:

EPN, EUSKARA BIZBERRITZENO
PLAN NAUSUA

QEU  **egunekoak** 

Deputación
Foral de Álava

Arabako
Foru Aldundia

Vitoria-Gasteizko
Udala
Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz